

MEZKIRIZKO LANGINTZA

PERPETUA SARAGUETA
JOSE M. SATRUSTEGIREN
gidaritzarekin
Etniker-Nafarroa

Udazken argi eta emankor batez Perpetua Saraguetak idazle prestu eta argiak idatzitako lerro hauekin amaiera ematera goaz Etniker lansaioetako itaunketari. Argitalpena neguan gertatu da, adina eta gaixotasuna beren zama astunarekin emakume azkarraren indarrak, eskuak eta oroi-mena moteltzen hasi direnean.

Galdekizun hauen ildoko bere lehen lana, «Mezkiritz Erroibar» (CEEN, 31, 1979, 5-36)*, duela zazpi urte argitaratu genuen. Ordurako egiten ari zen honako hau ere, garai bereko eskuizkribuak baitira hiruak. Bigarrena kaleratu berria da «Mezkirizko etxe barnea» izenburuarekin («Anuario de Eusko-Folklore, 31, 1982/83, 31-48 or.).

Herri honetako bizimoduari ez dagozkion gaiak isiltzen ditu, hala nola IV. atal osoa, itsas-gizonei buruz antotaturik dagoenez.

Lehenago argitaratu ez bada, magnetofoiertz hartutakoekin osatu nahi genuelako izan da. Zerbait irabaz zezakeen noski, baina zetorkion luzapena etsigarria baitzen, dagoen-dagoenean uztea erabaki dut. Magnetofoiertz hartutakoek beste irakurpenik izan dezakete, doinu, ebakera eta azentuaren aldetik, batez ere. Perpetua Saraguetaren lanarekin, hain zuzen, bi gauza lortzen ditugu: Nafarroako beste herri bat Etniker azterlanetan sartzea eta, bide batez, hil-zorian dagoen euskalki bateko lekukotasun baliagarria hizkuntzalarien-tzat eskaintzea.

Sail bati amaiera emateak ez du esan nahi

* Anuarioko lanean, huts eginik, FLV.aldizkarian argitaratu zela, esaten da. Alipamen jatorra, beraz, orain emandakoa da. Alderantziz, «Trinidad Urtasun» izeneko lana, *Fontes Linguae Vasconum*, 32, 1979, 333-338 orrialdeetan agertu zen.

emakume honen lanekin amaitu dugunik. Beste gai askori buruz eta ikuspegi desberdinetatik eman izan zuen bere iritzia eta, bai Etnologia aldetik nahiz hizkuntzarenetik, han hemenka argitaratzen joateko on direla uste dugu.

Bitartean, inprimategiko ale bakoitzarekin bozkarioaren irriparra berritzen diogu egileari. Ez da gauza haundia gure aldetik egindakoa, baina horrela eskertzen diogu beste garai bateko ahalegina eta idazteko zaletasuna. J.M.S.

III ABEREAK

3.1. Mezkirizko errian eta neure zaunmentura guzian izen dire beiak, zaldiak, ardiak, auntsak, txerriak, txakurrak, lapiñak (edo konejoak), olloak, usoak... Beiak deitzen zire «raza pirenaiak» nere aurtzaroan, gero orai artio badire gise geinetaik «Holandesa»raño. Biorrak geienak aurizkoak deitzen zire; anka zabal, ederrak zire.

Uretan nagusiein etxean ba zute zezena eta zarmanta ala ere beiendako; eta txerri aketza txerri ardikoendako, Biorrak erematen zire aurizko zaldire.

3.2. Azten dire aratxeak eta potokoak. Gabelan paratzen zitzaioke bazko egosiak eta piko-rra. Eta gabelain gañaldean matxada olako bat eta olakora botatze ze belar idorra. Lurrera botatzen ze iretzea goatzetako bior eta beiendako.

3.4. «Biorrak erran omen zio, beiari: *Ama Birgiñe martxoko, ni borturat ostiko*; eta beiak

erantzun omen zio: *Ni erramuaren beldur egin dezan txitxor edo elur».*

3.5. Belar gisa oitakoak geienak iaten dute beiek eta ardiek, lenago auntzek ere. Gisa ortakoak badire Sakarte burun, Bentarraineko eta Zizilieneko borden inguruan, Izoztan, Larre-burun, Dondore-gibelean, Errebelun eta Errebelu gibelean; ireztorrietan...

3.6. Sorogaingo belarretara erematen dire bei eta bior antxu guziak. Egoten dire denbora ona deño. Geienian Azaroain erditsuraño.

3.7. Bakotxak beren bordetan edo inguruan.

3.8. Sorogaineko marka auxa da: VE. Valle de Erro nai du erran.

3.8. Sorogain Erroibarko delakoz, an saritzen da. Konprenditzeko obeki egun batean, udaberrian izeten da marka eta egun ortan biltzen da zortzi bat ilebete egon bearduen azienda guzie. An biltzen dire Frantziek zenbait errikoak, Baztangoak eta Erroibarko amalau errietakoak. Eta etxe batean markatuz bezala, sarituz denak pas-tzen dire. Gero bazkari bat ona egiten dute angok bildu diren alkate eta zaindari geienek. Arara jua-ten ez direnak geienak azten ai dire edo ernari-ek dire. Ardiek ezaguntzen omen dire belarrietako ozketaik, edo ellean duten marikatik; betiere gisa ortan etxe bakotxak badu bere marka.

3.9. Laneko azientak izeten dire beiak zaldi zenbait, mando, astoak. Gizentzen dire txerriak il eta iateko. Txerri emeari deitzen da ardikoa, eta arrai, ordotsa. Aratxe arrai orotsa eta emeai urrixek. Au aunditzen delaik eta susel paratzen delaik erematen zaio Uretako zezenarengana. Izen da dembora puska bat albaitea deitzen zena eta berak sartzen zio eskuz sendakaria litzeke bezala erdaraz germen eta euskeraz azia deitzen dena ernalazteko beia edo bige. Txerri ardiko edo artama iñeusten delaik erematen da Uretako ake-txarengana ernalaztera edo ernari paratzera. Aurizko zaldi eder batera erematen zire erri ontako biorrak giri zeudelaik. Eta ardiak etzutelaik nai ernari para zeizten begiak estaltzen ziote trapu batekin. Trapu onei deitzen ziote xartaxa. Gaur ez naiz oroitzen ardiaren berotasunai zer edo nola deitzen den.

3.10. Idiak lurrein itzultzeko eta gurdi edo karroa egurrez bete etxera biltzeko. Bai eta ere zaldi mando eta astoak, etxetara gauzak biltzeko bai eta ere beren gañan arat onat erabiltzeko.

3.11. Beiak eta idiak.

3.12. Laneko aparexuak bastaren gañan, eta zela edo silla gizona ibiltzeko arat onat. Uste dut basta eginzaleak egiten dituztela. Deitzen dire basteroak. Nere aur denboran Gereiñen (Biskarret erdaraz) egiten zire eta arront ederrak. Gero ezagutu ditut Estellako Basteroak.

3.13. Xaloki-xaloki aise da artu eta lotu etxe bakotxak oitura duen tokian. Nik gauza guti dakit ebetaik.

3.14. Jualeak deitzen ditugu guk, eta hacienda geienak erematen du. Hacienda deitzen da: bei, biga, aratxe, idi, zezen, bior, bioka, zaldi, mando, asto, auntz, eta ardi guziak. Jualen soñutik iakiten da nontsu diren bakotxa. Ez dakit tupikie den edo bronzeari, biorrek erematen dituzte aundixkoenak. Erematen dire lepotik dilinden zurzko kollaren batetik.

3.15. Lenago berebilik etzelaik etortzen zire Iruñara zaldikotxe batzuk dena soñuz beteak, kaxkabilek eta txintxez beteak. Gero berebilek atera onduan ez dut ez entzun ez ikusi.

3.16. Ur bedeikatuarekin bedeikatu estrabileko xoko guziak azienda barnean dagolaik. Kandelan bedeikatua bixtuz eta botaz sura erre-daien erramu bedeikatua erramu goizean. Bai eta ere aize gaistoaren kontra onak dire gauza ebek. Ala ere nik bertze oitura bat dut. Otoitza eginez erdaraz erraten da «Trisagio de la Santísima Trinidad» eta asi eta akitu orduko akitzen da erauntsia, aize gaixtoak, iñezturek, ostotsak.

3.17. Izeten dire sendagailuak haziendaren-dako, eta nik ezagutuek seurik balio zute ortarako. Lisontsi lore eta piñu bedeikatua endara edo pala batean artu su bizien eta gañera bota errandudena eta mutur azpian paratu eta arront ongi gelditzen dire berotasun arekin.

3.18. Bai bedeikatzen dire bearden guzietan. Izurri edo epidemia bat delaik azientain artean barreatue, edo uste dutelaik begi gaistua bota diotela bere azientan eta asten dire gaizkitzen bat edo bertze.

3.19. Bai, lizar bedeikatuarekin eginikeko gurutze bat, eta San Antonen iduria. Bietan badute sinismena.

3.20. Ez dut ez neure etxean eta bertze batean ere ikusi eta ez eta ere aditu olako gauzaik.

3.21. Bai, txerrikumeak, ollo, ollaskoak, lapiñak... kezulotik iasten den kate lodiarri ematen dute iru ingurualdi eta aldiro emanten diote ba-

kotxaren inguraldia erranez «etxera bil», iru aldiz.

3.22. Ez dut uste baden alako oituraik ez dut sekula alakorik entzun.

3.23. Saltzen edo erosten dagonean. Azienda saltzen delaik ordaintzen dire etxean diren zorrak eta lasai gelditzen dire ebek gabe. Batzurretan Artama bere umekin saldu bearra izaten da ez delakoz zer eman aitera; bertze aldi batez sei edo zortzi txerrikume bi ilabetekoak... Bertze batzurretan Txerri gizanduak saltzen dire ola obeki eldu zagotelakoz, baño gisa guzietan ongi eldu da etxetan, batzurretan ordaintzeko erosi diren gauzak eta bertzelaz aziendaren iatekoak erosteko.

3.26. Nere idurikoz aziendarendako gauzaik oberena da xaloki itz egitea berekin.

3.27. Txerriak dire etxean iateko azten direnak.

Odolarekin eta bertze gauza batzurekin egiten dire tripotak eta barridekoei eta bakotxak bere aide urbilenei ere bai erematen diote gibel puxket eta bertze txinger puxke bat yastatzeko denek aien txerri iltzetik.

3.28. Erleak badire erri ontan eta iduri due-nez toki ona da berendako. Orai olezko erle tokiak dire baño ni aurra nitzelaik egiten zire sasietan ateratzen zire korda iduri zuten gauza batzuek eta ur makilekin esporta gise egiten da eta gañetik ematen zaio bei kakarekin eta ongi idortzen delaik bilazten dute erlea berera. Ortako bi arri bi eskuetan artu eta bata bertzearekin ioez erraten zaiote: bil, bil, bil, apal, apal, apal; eta bertze toki batean balinbadire bilduak, trapu zar batei su eman eta erematen da erleak diren tokire eta keak mogieztan ditu eta biltzen dire erle ontzi berrira eta iruzkira begira paratzen dire eta laketzen dire segido. Nere aizpa batek erraten zire lengoan erleak sorrak direla eta arriak iotzeaikin elkarrekin aitzen zutela zerbait eta ortaik ezagutzen zutela bazutela beren iabea eta lasai gelditzen zirela beren etxean. Eta airean balin badazi ere arriek ioaz iatzi eta biltzen dire. Erle bakotxak egiten du ume alde bat eta denak erregine bate-nak omen dire eta erlek iltzen omen duzte bera-ekin ibiltzen diren zangano guziak. Eta ume alde guziak biltzen dire gisa berean. Eztia ekentzeko eke anitz ematen diote eta motel daudelaik eken-tzen diote eztia eta akendu alde bat eta uzten diote uda berrirano erlek biardutena.

3.31. Ni oroitzen naiz nere amatxik egin zue-na baratzean ginduzen erlekin eta «Neure oroi-

menetan» erranik utzi nue, nola artu eta ereman zire erleak zeuden tokira eta iru aldiz io zituen erlauntzi guziak eta erran ziotela aitetxi il zela eta egin zezaten ezti baño argizeri geiago bear zuelakoz animeaindako. Au ze gutiz gora-bera erran ziotena: *Zuen eta nere nagusia il de eta eskatzen diziet egiteko ezti baño argizeri geiago bear dudelakoz animeaindeko*. Eta oroitzen naiz ere nola uda azkenean erran zion nere amak ama-txiri zembat argizeri geiago dugun bertze lengo urtetan baño.

3.32. Bai badire etxeak aziendarekin bizi di-renak, baño labrantza batean, zerengatik iatera ematekotan denei lurrari ekentzen diote. Geienak ardiak dituztenak ere badire. Ebek geienen beren bordetan sartzen dituzte.

3.34. Geienak egunoro. Negu geienean etxe-tan egoten dire. Eta uden len errana den bezala Sorogaingo mendira erematen dire beor eta bei antxu guziak.

3.36. Ardi latxak dire erri ontan geienak.

3.37. Au ere errana da dena.

3.38. Buru bakarka.

3.39. Geienek badute beren borda eta de-nak eginek dire: arri, mortero, zur eta tellatuee-kin. Dena bear dute sobera elur egiten du.

3.40. Sorogaingo artzaaien etxola iru aldetak egur lodiekin egine da eta gañalde guzia zoia aundiekin estalie. Laugarren aldetik paratzen zaio atarie, erditsuan egoten da su egiteko tokie eta barnago artzaiaian edo artzaaien guatzea, aundia, artolastoak matatalaza batean sartuak, auserki eta gero koltxille batekin estalie ebengañetik be-rek duten gogoan paratuak, baño nere iduriz gua-tze garbiak eta aski ontsuak. Sue ere ederra eta ongi bildua izeten ze nik ikusiak seurik. An egi-ten zuten beren otorduetako salda eta yakie ere bai. Urepelgo artzaiek etxola berean egiten zutze gaztak, jzein onak egiten zutzen! ¡Bakarrak eros-ten zitue nere aita gazta mine egiteko! Gure errien maite da anitz gazta gisa ortakoa.

3.41. Udeko etxolak dire erranak, eta negu-koak dire Bordak beren etxola tikiakin. Baño ba-kotxak berea; bada belar aski emengo azienda-arendako, eta Sorogaingo belarrak gañera, Erroi-barkoak dire, eta bei eta bior antxuak eremanez geroz Sorogaingo mendietara ez du niorek ere-maten ardi bat ere erriko mendietak kampora. Artegiek izeten dire ardiek yainzteko eta estrabi-leak garbitzeko denboran ardiek egon daitezen trankil beren tegian.

3.42. Ez da deusere olakorik erri ontan ez artzañik eta ez etxabolarik ere.

3.43. Ez dut egundeño eskutan iduki olakorik ez eta irakurri ere.

3.44. Orai ez dakit baño ardi geienak beren nagusiekin ateratzen dire mendietara. Aspaldien ez dut kampoko artzañik ikusi. Lenago baze Uneia erriko bei eta biorrendako, baño orai Amar bei badire etxe batean amar egunez ateratzen ditu etxe artako nagusiek; bertze batek iru bei balinbaditu iru egunez egoin da eta ala nagusi guziak. Sorogaingo Unaia izeten da Gizon bat; berdin, bere seme batekin eta ongi zainduak izeten dire.

3.45. Ez dut uste bedeikatzen denik belarrik, baño azienda bera bai bedeikatzen da San Anton egunean meza ondoan.

3.46. Ez dut egundeño aditu alakorik.

3.47. Ez dakit baden erri ontan. Orai galde egin dut iakiteagatik eta erran direte baietz ardi duten guziek badutela ardi txakurra. Barkatu!

3.48. Beren bordatik urbil dire errira eta gisa ortan beren etxetara, ortarakoz ez dute gauza aundik bear beren bordatan iakinein gañan artzain dagon demboran prestatzen tuzte beren alorrak eraiteko beren tenoretan bear dena, eta bear duten sugerrie ere bai. Uso pasa balin bada, eremateko eskopeta, uste dut artuko dutela bear duten baimena. Erri ontako jendeak lan geienak batean, ixil ixila egiten dituzte eta gero usteik gutienez eginik aurkitzen dire.

3.49. Bildotsak uste dut erri berean anitz iaten direla eta gañerakoak ere urbil gelditzen direla. Juanden uden esnea, erraten zirete, ardi esnea erematen zutela Burgosa. Baño bada etxea esne guziarekin gazta egiten dutena eta arront ona ala ere. Bai lenago seurik bazire su arriak eta esnea berekin egosten zen. Lenago oroitzen naiz ikusik gizon Artzaña «galtza motzak» egiten. Ebek izeten zire arront lodiek eta azkarrak belau azpiraño. Elur aldi aundienendako onak dire.

3.50. Altzinago erran dut urbil dela erria bordetara, orduen aise erematen dute; baño badaikit bi nagusi artzainek badutela Land-Rover deitzen den berebila eta orrekin urrunago balute ere eremain al zutela.

3.51. Uste dut badituztela negurriak esnearen negurtzeko.

3.52. Ilea moxten da uztaillaren lemexiko egunetan. Nik ikusi izen dut kurexekin eskus, baño berantago makinekin eta ongi.

3.53. Emen basurde anitz bada; gabas sue egiten dute toki anitzetan izi daizten baño arront alke gabeak direla erraten dute: moxorroak egin eta paratzen dituzte baño ez dute anitz erdiesten beren lan guziekin.

3.54. Ez dute niongo belarretara erematen beren aziendak. Baño erri ontaik pasatzen zire kañadak nere etxeain ondolik. Ardiak zire eta nere aita ateratzen ze berei laguntzera igureia zalakoz.

3.55. Orai erran dut den bezala kañada pasatzeko bideak emendik pasatzen zire nere aurtzarotik onat.

V

NEKAZARITZA

5.1. Erriko etxe geienetan egiten dire labarri lanak orrengatik errain ditut etxe geienetako aitu dituden gauzak. Etxen izenak erranak dire lemexiko egin den lanean. Badire zenbait etxe bigarren bizialdean dutena sukaldea, labea, lo egiteko salak edo kuartoak. Pikortegia edo «grano» erdaraz. Saka deitzen diren zaku aundi batzuren barnean altxatzen dute. Bizi toki ebetan ere erdaraz deitzen da «cuarto de baño» eta euskeraz garbitasunein gela edo sala. Azpiko edo lemexiko bizitokian egoten da estrabilea bere azienda aldearekin oraiko aldian geagoenak dire beiak zerengatik saltzen da esne anitz «Kopeletxe»ra; goiz oro juaten da Iruñetik esne alguziaren eske. Etxe geienek badituzte bi atari: bat ongarritegira laister ateratzen badute ere beren sagoi edo alorretara eta maiz garbitzen dire. Lursagar edo patatategia ere beitiko bizialdean idukitzen dute bai eta ere labarrien erramienta gisa guzietarik. Gañaldean egoten dire agotz eta belar gisa guzietarik. Al bezain ongi konponduak dauzkite beren xoko guziak. Eta batzuek badute ure etxe barnean aziendak edan dezan nai due-laik. Ala ez bada, beren etxetara urbil dute denek, eta zentzu aundiarekin erematen dituzte edatera. Zenbaitek badute etxera urbil aski bertze borda zenbait, txerritegi zenbait barnean, berebile edo tratore zenbait idukitzeko tokie.

5.5. Etxe ebek badituzte bakotzak berengana urbil baratze zenbait, eta beretan biltzen dute tipule, porru, zanahorie, baratxuri, iler eta patata. Zenbaitek landa ederrak erri inguruan, bai eta ere sagoi xarmantak, ugeldera urbil. Baratze tikiak geienak laia eta altzurarekin konpontzen tuzte eta aundiek balenbadire tratoreakin. Erri ontako

lurretan geiagoen patata eraiten da orai. Lenago biltzen zen ogi pikorra, oloa, garagarra, esparzeta... artoa, bada ilerra, alubie, aixkola, txitxirioa... eta neure oroimenak duden idaztietan erraten duden bezala gure Sakarteko berokian eginikeko kafe edo aketa artu dut bein baño geago, eta goxoki baño erran zigute ez ginduela zil eta badu anitz urte ez degula erain, berrogeita amasei seurik. Sakarteko alor ontara oroitzen naiz lurre ontzeatik iketza egin eta iketz plaza beretaik sartzen gindue iketz orrause eta lur berria. Alor onen bazterretik iausten da ure alorretik goraxago sortzen dena. Mendi bazterretik doaie. Alorre au konpondaike tratorearekin, bai eta goldeaikin. Ni aurra nitzelaik ala egiten zue nere aita zenak bi beiekin buztarren paratuak. Oroitzen naiz dena altzurturik ere.

5.5-6. Lur gogorra baño lodia patata eraiteko xarmanta nere ustez.

5.8. Landak eta alorreak.

5.9. Erran duden gauza guzietatik baño azia ez da ez eraiten eta ez biltzen. Aziendaindeko beardiren belarrak. Ongarria zabaldu negu eta udaberrian, eta gero ebaki idortu, bildu eta agoztegian sartu uden. Alorretan berriz itzuli, xeatu ongarriekin nasi eta erain gogo dena, urte batean gauza bat eta bertzean bertzea.

5.10. Orai erran bear dut nola egiten diren labakiek, Aur-aurrean ikessie dut. Lurre emanez geroz geienean ematen zute 4 edo bortz urtetako; ez dut uste bear dela deus ere idatzik. Ortan euskaldunen itze askide. Gero lemexiko gauza lur alde guzian ekentzen dire lar mota guziak, urrek, ezpelak, ellorri eta gisa guzietako abarrak eta denak multxuka paratzen dire, lan ebek obeak dire uda azkenean egiteko. Gero xerradatzen da xoko eta bazter guziak eta ongi idortuak direlaik, abar guzien gañan paratzen dire zerradatuikoko purruxke guziek eta egur idor batez su eman multxu guziei erretzen aidiarelaik ongi ailtzurtu, barnalago eta obeki, eta denak barreatu ondoan egin guzitik xeago eta obekixago. Lemexiko aldian eraiten da ogi pikorra; au aitek botatzen zue eta guk polliki polliki altzurtzen gindue. Ondarra ematen zue nere aitek otoitza: *«Jaungoikoak duela parte; aingeruek bertze ainbertze, eta gaistoek ez batre»*. Lan ontan bear zire aizkora, lar austekoa, sardea, altzurrek... ez naiz oroitzen geiagotaz.

5.11. Nik uste dut erran dudela erri ontan erain eta biltzen diren pikor guzien izenak. Gañera landare geienena ere; litxue ez dakit baño bertze dakidenak bai; xorratu patata eta landare

geienak xorratzen dire maiatzearen ondarrean eta uztailaren erditsuan.

5.12. Emen geiagoena ongarrie ematen zaio eta geiagoena udaberrian. Kisue egiten ze Berregu aldean kisu arria da eta zenbait labe erre izen dire nere demboran. Lan berri zenbait egin bear balin baze etxe zenbaitetan lenik kisue egiten ze. Azaroan eraiten ze ogi pikora, eta patata martxo edo aprilean. Esaera au aditu dut anitz aldiz: patata eraiten bada martxoan nola aprilean, ez da maiatzeraño agertiko.

5.13. Sagarondo on guti da eta aranak ere ez dire sobera. Denbora otzak ez du sobera laguntzen. Emen ez dugu ez olioik eta ez sagar ardorik baño bear dugulaik erosten dugu.

5.15. Lan ebek uden egiten dire baño guti izeten da denetaik. Ez da mats pikorrik ere eta ez izeteaikin ezin iakin deus ere afera ebetaz.

5.16. Moxorroak, gizonak bezala bai eta ere andreak bezala paratzen dire alorretan baño ez dut iakin zeñek norei izitzen duen.

5.17. Lenago erran dut aparexuen izenak labakiek egiteko orai tratorekin egiten dituzte; aise go da. Orai agotza pikorretik berexten da trilladoraikin. Bada pikor, alubie eta ilerrak eskuz berexten dire, eta arto ain guti da... aski da eskuz berexteko.

5.19. Ez dut karrorik ikusi aspaldien eta atzendue dut.

5.20. Gauze ebek aspaldien ez dire ikusten. Aspaldiko gauzek dire eta antziek edo atzenduek dire.

5.21. Orai tratoreak dire eta dena mekanikaren indarrarekin egiten dire; baño len, nere aur-tzaroan, idi eta beien inderrakin golde eta bertze iduriek itzultzen zen lurre zelaietan, baño xokoetan altzurrekin edo laiekin altzatuik dauden tokietan. Etxe bakotxeko langilekin egiten al bada prestatzea eta eraitea, ez da nior ere deitzen lanera, baño ez badire aski, biletzen dire pionak ordainka bedere eta gaur batera, eta bier bertzeaña egiten dire. Lan gise ontako geienean buzo deitzen direnak eta berez arront zabalak, paratzen dire. Ongarrie eremateko landa eta alorretara, bide ertziek balinbadire erematen tuzte zaldiek, biorrek, mandoek eta astoek. Ebei bastaren gañan paratzen zaiote esportizoak deitzen diren aparexu batzuk bi aldetara dilinden gañeraño ongarriz beteak, eta ola erematen dute alorretara baño bide zabalak balinbadire, idi karroan al guzie ongarriz beteak erematen dute karrua eta erematen

dute landa edo alorrera. Buztarrie orai apaingarritako etxe geienetan bada.

5.22. Golde edo ori iduriak errestatzeko ezta abereik paratzeko oituraik.

5.23. Erran ditut tratore, makina, segariak, itz batean nekazariain laguntzale geienen izenak, ez dut erran ogi pikorra egotzeko errotaz; ez dut deus erran eta Mezkirizkoek beti izen dute Uretako errota; bai berdin zue ogi pikorra egotzeko gendearendako, eta arto eta iduriak hazienda gisa guziendako. Ez da guti.

5.24. Badire erri berekoendako tratore eta bertze makine zenbait denendako arront ongi eldu dena eta geiago ez balin badu bear duenak. Badire ur aska ederrak eta arront ur onak aska oiendako.

5.24. Iturri ederra iru kañuk eman al duen uraikin, karrikein erdian. Lemexiko barride Txorondo deitzen denean bertze iturria, aska ederrarekin. Ur beretik dire denak. Hazienda dabilen mendietan ere bada ur auserki. Mari-iturrin erreka pasatzen da Arreste, Usein eta sagoyetatik, Uerkatik pasatzen den ugaldera. Erro deitzen da ugalde au. Gero Izoztara urbil Askarreta. Iturria bere aska urez batearekin. Bada Aurizberriko egira iritxi baño len bertze iturria aska bete urekin; deitzen da Egiko Asketa. Turtziberan ere bada erreka tiki bat, Sorogañen bada ur auserki, ugaldea gabe, eta inguru aietan sortzen da ugaldea.

5.25. Nere idurikoz, azi, planta eta ongarriz landra bertze ganerako gauza guziak nekazaritzako Iruñetik erosten dire eta gauza geienak erematen diote goizetan Kopeletzeko esneak erematen dituenai. Altxairuek konpon dezaketen gauzak Erro edo Auritzen kompondiko dituzte; zurgin kontue balin bada Erron badire bide onak. Txerri erostunak ibiltzen dire etxez etxe. Arrotzik balinbada saltzeko juaten garenek erosten ditugu. Aurizko arakine juaten da asteen bi aldiz aragi saltzera. Errikoak non saltzen diren? ez dakit. Ez dut galdegin. Merkatu eta feriek Auritzen eta laronbatetan izeten zire lenago eta uste dut orai ere ala direla. Uste dut ere maiatzain leme-xiko este ondarrean izeten dela ferie, eta agorrain 18tik 22re gutiz gora bera eta merkatuak amabortzetik laronbatetan. Lenago arakindegia eta okindegiak bazire bire erri berean baño orai Iruñan eginikeko ogia erematen da errira; astele-netan, asteazkenetan, ortzileretan eta laronbatetan. Lenago bazire bi etxe gauza bearrezkoak saltzen zirenak, baño orai ertxiak dire biek.

5.27. Karretera nagusitik kampo dago erria baño Bentatik asi eta erri guzie inguratuz bada bertze karretera bat errikoa deitzen dugu. Esnoz, Antxue (Aizioa) Loizu, eta Ardaizko erritara juaten gara. Sakarteko menditik barna juaten gine zaldi, mando edo asto gañan aurrak ginelaik, orai uste dut Errotik barna daien karreteratik juaten direla berebiletan. Aztziberra ere len Sakarte burutik juaten gine baño oraiko berrik ez dakit. Uste dut anitz aldiz juain direla. Nere aurtzaroan ere Aurizberrire Kisulabeko oianetik juaten gine baño orai lar anitz omen da Arriurdingo ondo artan. Maiatzan Ama Birginarengana Orreagara juaten da erri au karreteraz-karretera, Zilbetitik asi eta Mezkirizko Bentaraño denekin eta karretera zarrera ateratzen diren erriekin: Gurbizar, Ardaiz, Loizu, Antxue eta Esnoz, Mezkirizko Bentan biltzen direnak. Erro, Olondriz, Linzoain, Gereñe, Zilbeti eta Mezkiriz Uretakin. Mezkiriztik izeten ze anitz gurutzadunak; bai eta ere ortoxiak. Erri bereko Mariaren alabak beren estandartearekin bi neska aingeru xuriz beztia bi aldetik.

5.28. Nere aita egiten zitue neguan espor-tak, laia, altzur, aizkora, segakiderrak eta abar; gazteago zelaik kuxeta eta lau ortzekoak. Orrekin erran nai dut Mezkitzen egiten direla gauza oiek denak. Badirela kuxeta egileak eta lengusuak direla. Kider guzietatik egiten direla eta egintzale-tan nere aideak badirela; esporta egintzaleak uz-tei zaleak. Itz batean denak langileak.

5.29. Ez dut ikesi itz bat ere, berrik, gauza saltzeko eta ez erosteko ere. Bakarrik badakit kontu zenbait uzten badu nagusi edo etxe-ko andre zarrak ordaindu gabe il delakoz lenago gaztek laisterka ordaintzen dutela. Ez balinbada paperik ere lege gizonek eginik.

5.30. Iru errien artean artu zute Sorogaindik ura erri bakotzeko Linzoain, Gereñe (Biskarret) eta Mezkirizek iru erriek sartu zute berenetan ur auserki eta guzietan bada bear guzia. Nere ustez ongi kompontzen dire elkarrekin. Erri bakotxak baditu bere oianak, bere iturriak, bere eliza, bere kontuak. Erri ontako mendietan bagua nausi da: baño aritz zenbait ere bada. Pinoa paratu zute baño etze erdietsi lurra artzezan. Errien bizi direnendako egur loteak izeten dire, baño urte erdia bizitzen denaindako ez da deus ere ez eta ere etxe kompontzen direnendako, nagusia ez bada bizi arront errian.

5.32. Nere etxea kompontzeko bearra izen dut zerengatik lau toki bakarrik zitue lo egiteko eta ogei eta amar biltzen gine. Orduan egin ditugu amabi kuarto edo sala eta paradaizke ogeite

bortz guatze bedere eta badugu non egon senide guziak. Ez dugu tokik aziendaindeko eta kontent gara ala ere zerengatik amasei billoba eskolara juan daizkenak badute beren aite eta amarekin non egon. Baditugu bi baratze tiki etxera urbil. Urbilenean aurrek iosta daitzen eta bertzean patata eta tipula bedere erain eta plantatzeko. Baditut bi alorre eta patata alde uzten daiet belarrak. Uste dut irezkorri ere batek prottxatzen duela.

5.33. Len errana dut erriko denek edo geienek berek egiten dituztela beren lurren lanak, geienek badituztela beren aparexuak beren lanak egiteko eta norbaitek ez badu erriek badituela bereak eta denek egiten al dutela direnekin. Pion zenbait ordañez bedere artu dezaketela baño geienean bakotxa berekin konpontzen dela. Arboleik guti da ez bada bakotxak bere alor edo landetan, ez dena erriguzikoa. Maiatzaren iruan gurutze sandu egunean oitura da alorre bakotxeko gurutze bat egin erramu goizean bedeikatuiketo lizar edo erramueikin eta ontzi batean artu ur bedeikatua arekin ereman eta bedeikatu toki bakotxa eta paratu gurutzea erditsutan eta otoitz Jaungoikoak bedeika dezan xoko guziak gero iru gurutze egin artuz erramu bedeikatu arekin eta erran «Jaungoikoak duela parte: aingeruek bertze ainbertze, eta gaixtuek ez batre» aite gure bat, gero berriz gurutzeak egin berriz «Jaungoikoak duela parte aingeruek bertze ainbertze, eta gais-tuek ez batre»; be aitegurea, eta irugarren aldiz berriz gauza berak; gero il bada norbait ondar urtean beren etxean aren animaren alde aite gurea, gero San Cristobalendako bertze aite gure bat. Familieko il guzien animendako bertze aite-gure bat eta Ama Birgine Orreagakoarendako iru agur Maria, eta bertze alor batera eta alorre guzietan berdin. Etxeko atarien berdin. Hazienda dagon tokian bertze ainbertze. Gauza ebek beren asmo oberenekin egiten zuzte, mantxo mantxoa batre lastertu gabe. Ni bein baño (geiagotan) Juan naiz eta ikusi eta otoitzak ere egin ditut amaxi, ama edo aitarekin. Eta aiengatik gelditu dire nere idatziak aiei ikasiak.

VI

ESKULANGINTZA ETA BESTELAKO LANBIDEAK

6.1. Ez da len bezainbet. Orai nekazarien lan guzien gañetik juaten dire zortzi ordu lanera Zubiriko errira magnesitas deitzen den lantegira. Berebil aundiarekin erematen dituzte eta lana

egin ondoan itzultzen dituzte bere etxera; bitartean artzen dituzte langile geiago. Len baño lan geago eta jendea obeki da. Ez dut uste orrengatik aparexuen kiderrak kampuan egiten dituztela, baizik berek egiten dituztela. Bazire lenago bi zurgin onak: Ignazio Errea eta Felipe Billanueva; baño biek il zire eta Felipein semea zurgin ona da baño Iruñen bizi da eta lan anitz du dagon tokian. Lepokoak edo zildaiak egingzaleak ere badire eta ongi onak eta ederrak; gañera ebek berek egiten dituzte esporta aundiak belar eta agotztako.

6.2. Karro egintzaleik ez dut uste badela baño konpontzaleik bai ikusi izen dut bide edo iruen artean konpontzen; elkarrekin ongi konpontzen dire Jaunari eskerrak. Uste dut zur onarekin egiten dutela.

6.3. Ez dut egundano ikusi langisa ortarik egiten. Nik uste dut gisa ortako gauzak Lumbier delako erritik ekartzen zirela, beartzirenak.

6.4. Burdin lanak uste dut arotzek egiten dituztela eta ori Auritzen edo Erron egingzaleak badire.

6.5. Ez ezda baño, etxe geienetan bada buztarria xokoak obeki apaintzeko.

6.6. Ezagutu izen dut egingzale zenbait baño orai ez da nior.

6.7. Zumekin egiten ikusi izen dut baño kampotik etortzen diren «zitoei».

6.8. Len errana dut kuxeta egileak badirela, eta lenago geiago zela. Nere bi aitatxiak anaiak zirela, kuxeta egileak zirela eta bien artean bazutela umealde ederra denek bazekitela lan ori egiten, ganera bazirela iru anaia geiago eta ebek beren umekin ere kuxeta egileak zirela. Ezpeletik ateratzen zuzte kuxeta eta lau ortzekoak.

6.9. Bai badire jualeak eta ardi bakotxak erematen du berea, bai eta ere auntz bakotxak berea. Ardi eta auntzek negurri eta soñuan ere berdintsuak dire. Biorrek erematen dituztenak ere ez dire aundiak; Mezkitritzen beiek erematen tuzte jualeik aundienak. Ez dire erri ontan egiten eta ez ikustiaikin ez dakit nola egiten diren.

6.10. Orai ez da arginik erri ontan; lenago Aezkoakoak etortzen zire argintzera. Aietaik bat ezkondu ze Mezkitrizko alaba batekin eta Iruñen bizi izen zire. Badire etxe aski arripiketuekin eginek direnak, eta bada dermioa «Arripiketuzko iturri» deitzen dena. Bada ura berean eta arripiketuek ere.

6.11. Ez, ez da.

6.12. Lenago bai, lenago ikusi izen dut neure etxean arizko gauzak amatxik eginek, baño orai ez da.

6.13. Denbora ebetakoak dire brodazaleak, eta aspaldian nik brodatzen irezten nue neure eta neure senar eta umen bizie. An edo nindegon tokien. Eskulana izen da nere denborak pasazi dituen. Neure seme alabek, eta beren ume guziek erematen duzte nik puntuz-puntu eginikeko jantziak, txamarra euskaldunak deitzen direnak. Euskadiko eskudo guziekin; ongi bero eta eder ibili dire denak beren denboran Jaunari eskerrak.

6.14. Eiztari fine baze bat: Pedro, Pedro Fermína. Egun gienetan ateratzen ze bere txakur arekin inguraldi bat ematera baño ala ere zituen bei eta aratxeak lustre ederraikin idukitzen zitue: eta ere lar gutikin alorrek. Onek bere txakurrarekin bakarrik aski zue eizteko erbi eta azeriak. Baño Zepoak ere ikusi izen ditut alor zembaitetan. Orai basurdeak dire makurrenak alorretan kalteak egiten dituzte.

6.15. Ez dut uste otso kabik edo tokik baden nion ere.

6.16. Ez da eta errana da.

6.17. Berriz ere ezetz.

6.18. Bai, badire aizkolari onak eta iketz egi-leak ere. Nere aita ala ze eta iketz egiten autsi zitue bi besoak. 1920ko apirileain ama bortzean. Etze sendatu. Lan gisa ortako denboraik oberena, uda azkenean eta negu pasatuxean eta uda berrian. ¿Aparexuak? zerra aundiak, aitzkora aundiak, burdin ziriak, mallu burdinak (ebek egurrek egiteko), pala edo endoi aundia, ikeztokia lurrez estaltzeko, eskalera bat ieteko betegarriak emateko eta bai ere sue sartzeko barnera, zoiez estaltzeko dena ere bai. Ateratzen dire lanak usteik gutienekoak eta beartzen da usteik gutienean aparexu guzietaz.

6.19. Errana dut orai ez dela zurginik.

6.20. Bada elektrizista ona. Lengo zurginek egiten zuzte mueble onak eta ederrak. Fontanero zenbait uste dut badela, baño ez bada Erroko Makario ez da txarra.

6.21. Ez du anitz bide bazirela, baño orai kanpotik ekartzen dute dena. Aragi, eta arraňak, berdura eta fruta, zukre, arroz, legumbre mota guziaz, garbitasune egiteko gauze guzietarik eta bertze anitz gauze ekartzen dute Gereindik berebil aundi batean etxez etxe.

6.22. Erakuszale bat; eta andrea ze ondarra,

baño ez omen da aurrik aski erakustun geagorrendako. Ez dakit azkenean aurre gaixoak Zubiriko edo Garraldako errira eramain dituzten. Denborak aldatu dire, ni aurra nitzelaik ba omen zire berrogeite amasei aur; eta orai amarrik balinbada. Gezurre iduri du. Baño egia da. Ikastetxe bat bakarrik da. Lenago nexka mutilak denak Ikastetxe berera juaten gine.

6.23. Lenago ur otz bustialdiekin sendatzen zitue erriko alaba zen andre batek aski erixko zirenak. Baño laueta ogei eta amarretara urbil zelaik il ze bera. ¡Goian bego!

6.24. Erriko Iguieiak egiten ditu lan ebek. Etxez-etxe juaten da erratera noiz den ontzena edo batzarrea. Bertzen alorretara sartzen bada kanpoko azienda edo berena ez dena ateratu eta sartzen ditu toki ertxian eta nagusiak ezin atera ditu, saritu gabe diru zigorra ematen dutena. Bertze gauza anitz adierazten dute etxez etxe denak iakin dezaten bearrezkoa dena. Loteak markatu bear dituztela edo eginak direla... Auzelana egin beardela eta alako tokian edo egian... Erri tikia da eta ez da igurei bat baizik.

6.25. Nik dakidela ez da deus ere alakoik.

6.26. Ez da deus ere. Erriko lurtaldea. Nere idurikoz arront toki politean dago erri au.

VII INGURUNEA

7.1. Ugeldera urbil sagoi eder eta zabalak badire. Eta etxetara urbil, landa xarmantak; onak eta ederrak. Ni oroitzen naiz aurxkua nitze oraño eta arri morroska bat baze oraño Paskualeneko Larrain inguruan.

7.2. Gizonak egin zitue lan anitz arriek ongi ekendu zire eta bide ederra egin zute eta gutiregutire egin zuzte, bide ederrak eta denendako ongi etorri zire egin ziren lanak. Bai eta ere alorretan; gero eta ederrago daude, lan ongi eginak ageri dire.

7.3. Erri bereko goratasuna erraten dute dela itxasoain goratasunetik artua zazpi egun eta laueta ogei. Uste dut Sakarteko oianain goratasuna mila seurik izanen dela. Dermio ortako nere alorra beitixago dago, baño beroki puxka bat badu eta arras goxoa du eta toki ortan eraiten gindue pikor gisa guzietatik eta kafe edo aketa ere bai iakin artio etzela zilegi, eta arront ona izeten ze.

7.4. Erri onen dermio geienetan bada ure,

orreatatik lorea anitz ere bai. Ezpela ere loretzen da eta ezti anitz egiten dute erlek. Ortan ageri de gauza guziak ongi protxatuak izeten direla.

7.5. Nere amatxik erraten zue denboraingatik bederatzi ilebete negu eta iru su. Baño denbora aiek jua zire, orai ez da negue ain luzea eta ez ere ude ain beroa. Nere idurikoz berdina go dire demborak; obeki azten dire gendeak eta aziendak eta osasun geiago da. Denek egiten dugu geuren alditik geuren bizitzeko tokiak garbiago eta zainduago dauden bai eta ere geuren inguruan bizi direnak. Nai degu geuren etxe eta xokoak ongi apainduik dauden, zerengatik ola erri guzia gero eta ederragoa da. Baño bei anitz da, eta ebek beren zikinkeriak uzten tuzte dazin bide guzietarik orengatik garbitzen dituzte aski maiz erritarrek beren barride eta karrikek, baño... ala ere zikintzen dire maizago. Nere ustez errian sos gexago balitz... eta gibelataik egin lezakete bide ona garbitasun geiago ager daien.

7.6. Emen asten bada euri egiten, ez du gelditzeik, eta berdin asten bada idor egiten, asperetzen gara. Erri inguruan diren erriak geienak buztin edo tufa dire. Gero Adameneko bordatik lezemozt ingururaño lur gorri eta kisu arria gero andik Bentarrañeko eta Zizilieneko Borda, eta Ligezta gañerano, kisu geiago da eta dermio au lezetsua da.

7.7. Egia Aurizberrikin alde batetik eta bertetik Luserretako erriarekin. Lur ebek kuartzo deitzen den arriak dituzte eta berean bada nasie tupiki edo kobrea, zenbait tokietan aski, bertze batzurretan poliki askie eta bertze batzurretan gutiago.

7.8. Kuartzo ori da min egiten diona tupikia berexteko. Ori dena lur azpian, gañan lartsua da. Iretxea ere bada. Gañalde ebetan, itxasoain goratasunain negurritik da mile lauetan ogei.

7.9. Beitiago dago Irazabaletako oiana, arront bago zarmantak badire; eta oian ontan ikatz lan egiten aizelaik autsi zitue nere aita bi besoak. Erran duden bi bordaldetan daude ondar alorre landa eta sagoiak. Gero dire mendiak. Ebek geienak bagozkoak dire baño aritzak ere badire. Oian «bajuak» ere badire. Arri aundiekin nasiak ezel aundiak, lizarrak, urrek, basa sagarrak edo patxakak... orreagak, larrak ebek gisa guzietakoak. Emen irestorri aundiak ere badire. Labakik ez da. Toki ebek beti ezagutu ditut orai bezalatsu. Baña emendik Sakartera larrez iosia dago eta galtzen da bidetan. Karretera zar bat bada Ligeztatik be-

ti. Asten da Arrieta deitzen den erriko errota eta Benta ondoan, eta Auritz aldera asten den bidean. Ligeztara itzultzean ikusi izen dut arrizko bide bat gisa ontakoa. Azpiko karreteran Berebil tikiak eta kamionak ere ibiltzen dire. Alderdi ebetan ez da trenik. Lenago astoaikin ibiltzen gine. Ez dire tokiak iostatzeke inguru ebetan. Geiago ibiltzen diren kamionak egurrek erematen dituzte, olak eta iketzak batetik bertze. Erraten duden guzian badire bi karretera, berria azpikoena eta zarra goitikoena; gañekoetik urbil dago «Leze estali». Luserretako eta Mezkirizko egian dago eta berera urbil Guereingo karabinero deitzen diren gisa ortako gizonek il zute bizkarretik tiroekin, igizajoa! nai gabe aundia artu gindue erritar guziek, opila baño mutiko ohea ogeita zazpi urtetan desina bere bizia eta bere aita, ama eta aurridena... zein gaitsetsak diren alako saltsak egiten dituzten guziak. Kontrabandoan ibiltzen direnak geienean oñez dabilte eta oietaik bat ze il zuten mutikoa.

7.10. Zubi guti bear izen da erri ontako bazterretan eta bear bezala eginez jua dire, baño ez da batere ola aundi edo ederrik egin ez zelakoz bear. Ezagutu dut mando, zaldi eta asto gañetan ibiltzen arat onat bear bezala. Orai duela iruetan ogei urte eta geroxagoko denboran karro eta galerak eraibiltzen zire Iruñetik Mezkirizko errira, eta aziendaren yatekoak eta gizonendako ian edariak. Ebek gelditu zirelaik asi zire berebil aundiak edo kamionak. Iruñera juaten bazire geienean, goizean goizik juaten zire, goizik zenbait aldiz aziendaz beteak merkatutara saltzera erematen zituztena.

7.13. Barridea, edo auzoa, izeten dire etxe ondoan bizi direnak eta urbilena.

7.14. Ileri, bateiotan, txerri iltzetan bai eta ere sue lotzen bada etxean edo etxe ondoan. Balin bada besta bat etxean eta deitzen da lemexikoan beti lenak izeten baitire gauza guzietan.

7.15. Beti aideik urbilena baño len deitzen dire gauza guzietara orduan ageri da maite dutela elkar. Lemexik barridea izeten da lizera urbilena dena dena. Elkarri eginalak egitea beartzen diren tenore guzietan.

7.16. Bai beartuek izeten dire elkarren beartasun guzietan eta urbilena dena lenago.

7.17. Auzelanak denak elkarrekin egiten dituztelakoz erri guziarendako egiten dutelakoz.

7.18. Urbiltsuak izeten dire baño ez elkarri ukitzen. Mezkirizko errian lemexiko barrideak

Txorrondo du izena, eta emendik erriko, bi karriken artea artio deitzen da «Txorrondoko artea».

7.19. Gañerakoak deitzen dire ezkerreko aldekoa: Gañeko karrike eta eskuñeko aldekoari: Peko karrike. Mendi aldeko barrideari deitzen zaio; Biritxikar. Auritzberrikoek deitzen digute: Erriari, Japon. Eta erritarrei: Japoneseak.

7.20. Egiten dire Ontzenak eta Batzarreak. Erri guzia deitzen bada, Batzarrea eta gutiago deitzen badire izeten da Ontzena, ni aurrago nitzelaik gogoan dauket orai baño ontzena geiago biltzen zela.

7.21. Oroitzen naiz Uerkan bazirela bide edo iru sagoi eta eben belarrak subastatzen zirela martxoko lemexiko igandean eta nere aite urte geienez gelditzen zela bat edo bertzeikin. Ebei paratzen zitzekote sari bat eta gero gañera tantoak ematen zire eta goratuz juaten zire eta ala ere lur guti zuenak goratzeko lana izeten zue.

7.22. Errian erriko gauzak zaintzen zire, baño Erroibarreko gauzak zaintzeko juaten zire Erroibarrera eta erri bakotxak iortzen zute beren konzejalak eta andik zaitzen zire elkarren arteko gauzak. Biltzen zire idazkari edo sekretarioaren etxean. Ez naiz oroitzen ongi zenbat denbora duen baño denboraz Alduidesen biltzen zire eta nai-bedu jua Alduidesera an ikusiko du badela etxe bat erraten duela «Sekretaria del Balle de Erro». Baño ez euskeraz baizik erdaraz. Nik amalau urte nituelaik ikusi nue eta arrituik gelditu nitze.

7.23. Nik erran dut anitz aldiz arront gende langilea izen dela Mezkirizko jendea, asi aur aurretik eta beren ondar eguneraño laueta ogei ta amarretaraño balin baze ere, lana maite izen dutela beti. Jende geiago atera dela kampa lane-ra, errira etorri diren baño. Bi aldetako Ameriketara jua dela anitz eta ango lurretan bakarrak gelditu direla. Berdin gizonak nola andreak. Altzinego errana dut ze lan motak egiten ziren. Zein umetsuak ziren lengo senideak. Ni eskolara juaten nitzenean baginela eskola juaten ginenak berrogei ta amasei aur eta orai amar bat edo amabi aur direla goren gorenaz.

7.24. Gauze ebetaik orai ez da deus ere. Lena-go baze cooperativa deitzen zen etxe bat erriko zenbaiten artean paratue. Berean egiten zute ogia, iltzen zuzte arakayak, ardiak eta bildotsak. Saltzen zire, zaku irinak aziendarendako, yanari guzietarik, arto pikorra xeatua, arto irina, oloa, garagarra, zaya eta olako bertze batzuk: eguroko oñetakoak, eta genden ianari aski, eta arropa zerbait ere. Geienetaik saltzen zute Buruzuriñen.

Emen nere zaunmentura guzien egiten zute ogie saltzeko eta iltzen zuzte ardi, arakai eta bildotsak, aragie saltzeko. Ola obeki zego dena erri ontan; orai bi etxeak ertxiek daude salmentako, eta kampoetik ekartzen dute, bide edo iru urte ontan beardiren gauza geienak. Emendik erematen dute esne alde ederra.

7.25. Erri ontatik juaten dire Zubirira Magnetitas de Navarra deitzen den lantegira langile alde bat. Beren eske etortzen da berebil aundi bat, eta gero lana egin ondoan zortzi orduz itzultzen tuzte beren etxetara. Bertze langile geiago juaten dire Iruñera edo berera urbil beren berebiletan. Gau oro beren etxetan eguiten dute lo, eta urte osoan lana egin bear bada, egiten dute gogotik. Uste dut barkazioak artzen dituztela etxeko lanak aundiagokoak direlaik. Igande eta besta egunetan uste dut gazterie nexkak beren anaiekin juaten direla Zubirira dantzara.

7.26. Lan gisa ontan denendako bada lana eta denak ongi dire. Ez da lenago bezala, orai duela 70,80 edo egun urte bezala, ogei urte bete orduko bazezi mutilak eta bai eta re neskak. Amerike aldera juaten zire egundeño geiagokoik ez ikusteko geagorik, xos piska bat egiteagatik beren denborak obekixago pasatzeagatik.

7.27. Onara ez dire lan eginzaleik etortzen, emendik bai juaten dire.

7.28. Beti erriko eskolara jua izen dire erri ontako aurrak, baño orai uste dut asi berriek dire bertze erri batera erematen, baño ez dakit azkenean nora erematen dituzten, Aezkoako Garraldara edo Esteribarko Zubirira. Elizako lanak Linzoain, Gereñe ta Mezkirizko lanak denak apez batendako daude eta Mezkitritzen seurik kontent dire beraz. Emen bizi da eta etxe pollite du. Sendagillea orai Erro delako errian bizi da eta ortzegun goizero egiten du bere arat onatak erri ontan. Gañera balin bada bearduen norbait laster etortzen da ikusi eta bearduena egitera. Botike edo farmazia ere Erron dago. Gizonak igande eta besta egunetan geagoenik biltzen diren tokia izeten omen da Erriko-Etxera eta etxe au egin da orai duela bortz bat urte lenagoko ostatu zarran. Erri ontako ilen tokia aspaldikoa da eta etxe bakotxak badu bere bi il arri paratzeko tokia

7.29. Erri ontako sal erosiak uste dut goren gorenaz, erosten delaik ematen dela señaile bat; ematen zaiola saltzaleari iru puxketaik bat edo ori idurikeko gauza zerbait. Gauza ebetan aski motel naiz ni aspaldien zerengatik ez nago denbora guzian errian. Nik uste dut saltze eroste

geienak sos-truk egiten direla ez bada alorre edo baratze zembait bertze baten truk egiten.

7.30. Neretako galdera au altzinekoa beza-lakoa da.

7.31. Izetekotan Erroibarko idazkariain etxean baño ez beti.

7.32. Nekez; nik ez dut egundeño olakorik entzun.

7.33. Lenago zenbait balin bazire bertzen etxe zenbaitetan bizi zirela zerbait paper eginen zute baño orai ez dut uste, geienak bere etxean bizi dire. Galdera onei bertze zerbait erran dezaket: Nere etxeko amaxik erran izen tzire bein udeko lan aundienetan zeudelaik etorri zela biramoneko langile eske erriko etxalde zenbaite-tako nagusia, eta gelditu zire, aitetxi juain zela biramonean. Baño ordu pare bat berantago juan zela berak bizi ziren etxeko andrea eta eskatu ziola gauza bera eta erran ziola zer gertatu zen eta itzemana ziola lengoari, eta bertzerik gabe asarre juan zela erranez: Antonie, urteain ondar egune San Silvestre. Onek erakusten digu nola nagusi eta etxeko andreak ziren guzietan, zein guti balio zuen diruak eta urte astetik ondarrera zirela paperak eta nagusiek naizutena egiten zutela.

7.34. Ez dut egundaño yoku kontuik entzun.

7.35. Neure adin ontan bat bakarrik ezagutu dut eta uste dut bera azi zuen bezala, beartu izen baze erriko norbaitez, uste dut denek lagun-diko zutela bear zuen guziaz. Baze etxe bat bi aur artu zituen azteko aur-etxetik. Nere aitetxik eta amaxik, bat, eta berek izen zuzte bederatzi ume. Antonekoek ere azi zute bat seurik berenak baño geiago. Eta denak aur-etxetik atraiak. Eta denak maitetuak izen dire errikoak bezala eta zeuden etxetan berenak bezala. Ez dut bertze gau-zaik erraten al.

7.36. Asarre egiten du protxu gabeko lan gaitz egiten duenarendako gerezi, sagar edo aran zugaitzak autsi edo zañetaik ateratzen badire, baratze zenbait desiten badute nai gaistoz edo bertze gauza iduri zenbait.

7.37. Geienak olako gauzak egiten dutenak, ladrón edo lapurrak direla, geienak alorrak aundiazteko egiten dituzte gauze oiek.

7.38. Alorrik aundienak, etxealde aundiene-nak dire zerengatik etxe aldeko nagusiak zarrenez zarren izeten zire eta ume gaztenendako etze alorrik. Nere aitari ola erran zio erri ontako txéal-

de aundienetaikeko nagusi batek: «Aski yue le-nago sortzea». Ez da lurrik ematen niorei.

7.39. Uste dut errana dudela ni aski aurrá nitzelaik izeten zela uneia eta biorzaña, bai eta ere auntzaña. Eta bakotxa saritzen ze azienda buruen arabereka. Eta uneia baze eta balin bazire egun eta ogeite amar bei, bei bakotxari zembat eldu zitzaion urtean urexe ordaintzen zue bako-tzaindeko eta iru aldiz egunean edo bertzelaz bi aldiz eta egunesko ianaria ematen ziote azienda buru bakotxaindeko. Orai etxe bakotzean zenbat bei duten ainbeste egunez ereman eta zaintzen dituzte. Bortz dei dituenak bortz egunez eta ogei balin baditu, ogei egunez. Eta bertze aziendak gisa berean.

7.40. Badire eta azienda berendako izeten da.

7.41. Bada igurei bat eta urtean bein diputa-zioneko bat. Aikin markatzen dire errien bizi di-ren adine senide edo familiendako lote bat. Nik badut etxea Mezkitzen baño ez baineiz urte gu-zia errian bizi ez da neretako loteik. Baño an bizi direnak izeten dute, urte guziko egurre. Egin bear dute auzelanak nik eskeindu niote baño ez dute on artu. Ez dut uste geiagokoik egiten. Badakit egurrezko loten gañera badutela iketzezkoa ere.

7.42-43. Erriko berekoek denek berdin. Na-gusiek ematen badiote bai, bertzelaz ez.

7.44. Erriek ematen badu egin daizke: uste dut lau edo bortz urtez lana egiteko gero itzuli bear da.

7.45. Ireztorriek denek badegu geurena; ba-go lastoa bearduenak biltzen du bear duena eta iretzearekin batean izeten da aziendain guatze-tako. Babaratza txerriendako (yan dezaten) bear dutena.

7.46. Errien, errikoak. Ibarretakoak eta elizen elizekoak.

7.47. Elizen elizekoak. Eta errikoak erriko etxean edo batzarretan.

7.48. Erriko gendea ibiltzen da erriko bide guzietarik. Aziendak beren bidetik.

7.49. Exkortetaik erabili eta ertxik uzten ba-dire ongi dire: baiño utzi ongi.

7.50. Badakit ezin ukitu dela bertzen alorre baratze edo etxeik nagusiaren borondateain kon-tra. Ez eta zugaitzik ere. Bakotxai berea. Nik etxe altzinean ertxi nue neure baratzea eta erran zi-rete lege zarrak ematen zuela inguru guzitik bortz metro, baño nik ertxi nue lengo esie zegoen toki beretik eta ala dago, bideain kontra berean.

7.51. Orai ere ezin ukitu de tellatuain perezetik barnera. Erraten diote «etxeain fueroa».

7.52. Ez da arrantzale erria. Ez dakit batre seguroik aziendaindeko ba ote den. Sueñak badire nere ustez etxe geienetan.

7.53. Ure bere bidetik ez daike mogitu batzarre batean itz egin gabe zetaz eta nola mogi daiteken, edo egin daiteken edo ez. Erri ontan ur geiago eman diote juan den negu ontan erri guziko urari. Eta saritzea geiago da. Yakiñe da, lanak eta aparexuak ordaindu bear dire. Geienean esiak esualekin exten dire; esualak zurezkoak dire.

7.55. Lenago errana dut erletaz nola iabetzen den.

7.56. Auritzen uste dut amabortz egunetaik merkatuek eta feriak mayatzeain lemexiko astean ortzilarean eta laronbatean, lenago igandean ere bai. Agorrean emezortzian, emeretzian eta ogeian, baño laronbata albaz artuz.

7.57. Ez dakit deus ere galdera onei ezin erantzun dut ez dudelakoz iakin pisu eta neurrien aferaz ez bada arropenak.

VIII KULTURGINTZA

8.1. Etxetan balin bada aitetxi edo amatxik oraño adin onean daudenak aurrei erakutsiz solasean geienean aita eta ama izeten dire aur guzien lemexiko itzak; bein nik emeretzi urte nitue eta ni arropa eroste ai nitzen, saltzen zuten etxe batean eta erdaldun bat arron ilun zego erranez etzuela bere aurtxoak «papa» erraten beti aita, aita, aita erraten zuela egun guzian, eta nik erran nio: Zu eta ni baño abilagokoa dela ezagutzen da. Aurrak ez du erdaraz ikesi baño, ikesiko du bere denboran; orai «aita» erraten du eta ez dakozu zuk erakutsi ez dakizulakoz iz menta ori, ori Jaungoikoarerekin itz egitekoa da eta berak nai du lemexik ikas dezaten aurrek. Zorionak zuri quartu zeralakoz aurra euskalduna dela. ¡Zenbat aita eta amek ikusi dute beren umetan gauza bera, baño iakin gabe zer erraten zuten juan dire mundu ontai bertzer. Zure aurrak aita erraten du eta aita erdaraz ¡Padre! da. Beren zeruko aitari erraten diote. Eta erdaldun aita gizajoa zorionez betea gelditu ze. Gero aitu izen dut bertze erdaldun anitzei eta egin dut al guzia ardezaten gogoan aurrak euskaldunak sortzen direla. Aite eta amak erakusten diote lemexiko oñaldiak

ematen, bana bai eta ere aitetxi amatxik eta aurrein aurrider zarrenak.

8.2. Erran duden bezala lemexiko itzak aita eta ama erraten dituzte, gero «papa», «toto», «tata», «teta», «tita» eta bertze iduriak.

8.3. Gauza zikinek balinbadire erranez: ¡aga! ¡kaka! ¡mu! (pixka bat ixitzeko).

8.4. Eta beren aita ama aurrider eta bertze aur tikiari, pa edo muxu tikiak emanaziz eta erranez: pa amari, zein pollite den amatxo! eta aita-txo ¡zein ederra! Yon Mikel tikia bezala ez? bai. Gutiz gora bera ikesi zute nere aurrider eta neure ume eta umen umek ere; eta ez da batere motela izen solaseko. Trebe aski dire denak. Gero asi dire ikastola edo eskolara eta an trebatu dire baño erdaraz. Etxean zuka solas egin dute.

8.5. Erakutsi ditugunak, geurei erakutsiak geuren aita eta amak bezalakoak izen dire.

8.6. Nik erakutsi niote eta niri ere erakutsi zirete neure altzinekoei.

8.7. Jesukristoren Ebangeliotik atera dugu-ne. Aite gure Berak erakutsie. Etxean ikusi dugu eta egin degu Aitaren semearen eta Espiritu Sanduaren izenean, noiz nai; edozein lan astean, otoitzak, ian edo edan baño len, goizetan, eguerdien, eta artsetan. Etxean Ama zerukoain irudia ere, bere lo gelan, eta etxeko xoko geienetan, egunoro arrosarioa. Eta itz batean geurek ikasiak geuren altzinekoei.

8.9. Aita eta amari lagunduz beren lanetan guk egiten ginduen bezala.

9.10. Guk erraten diogute zerbait makurkerie, edo ez obeditu ego gaizki egin zerbait egiten badute erraten diogu ¡Zer naigabea duen amatxok zuk egin duzun gaixtekerie onengatik, eta negarrez gaudela bezala egiten dugu eta denbora puxka batez baute aski orrekin. Eta adinek erakusten du zer egin berantago. Nere idurikoz gutire gutire juatea obe da. Neure adinek erraten dire aurrekin maitetasunak irabazten dituela.

8.11. Erri ontan eskola bat bakarra izen da aldien. Nere denbora eskolazar bat itexurez betea anitz aldiz elur denboran geuren oñak eskolapuñekin egoten gine ¡bearko!, baño bagindue erakusle ona eta ala ere gogotik juaten gine geure eskola zarrera. Eta uste dut nere aurriderak eta ni bezala juaten zirela gure erriko aur guziak. Gero mile bederatzi egun eta ogeite bian egin ze ikastola edo eskola berria eta uste dut osasun garriago zela baño gizajo Don Manuel gelditu ze

arrant osasunik gabe eta alako erakusle onik gabe gelditu zire Mezkirizko aurrek, etzitzego egundean osasune itzuli gizajoari. Erran dut altzinego arek ematen zuen denboran bagine berrogeite amasei aur, baño gaur ez da amar edo amabi aur baño geigo, eta uste dut kanpora juaten direla. Uste dut orai bortz edo sei urtetan, gure denboran lau inguruan baño nik zazpiak banitue asi orduko Dn. Manuel zenarekin. Au etorri ze bere sortu errira mile bederatzi eta amabiko ude azkenean eta dagonilain iruen bete nitue zazpi. Uste bereko jorrailaren ogeite batean izen ze. Mezkirizko aurr guzien 1.ko Jaun artzea. Beretan aurkitzen nitze ni sei urtekin, eta sei urtetaik amabitaranoek egin gindue eta erraten dut ez baita egundean alako lemexiko Jaun artzeik izen erri ontan. Pio amargarren aren naia bete ze eta gañera aur anitzeko denbora ze. Orduen zego erri ontako erretore Auritzberriko seme zen Urtasun'tar Simón jauna. Bakarretan ikusi izen dut zorionez betea egun ortaz oroitzean. Bere etxea, obeki errana, Mezkirizko apezteguia bete zue aurrez eta uste dut tikienetaik nitzela denei eman zigu baruats garria, txokolatia esnearekin egina eta nai ginduen guzie baño nik guti artu nue, busti bat eta tikia, eta café artzeko katuli tikienetaik bat txokolatez betetsue edana, eta ase nitze baño ikusi nue bazirela iru aldiz beteik eta nai zuten ogi guzia. Nik ez nue iateko eguna, ez naiz oroitzen zetaz. Orduen etzire xuriz bestitzen 1.ko Jaun artzean. Nik lemexiko ikusi dudena erri ontan xuriz bestia lemexiko jaunartzean Justa Antonekoa eta ni baño sei ilabete zarrago zelaik ez naiz oroitzen, nere egun berean ote zen edo ez. Oroitzen naiz ni baño zarraokoaki gelditu zirela Jauna artzeko urbilan aldiko, ni atrebituxago ote nitzen ni... ori gogoratzen zaide besta ontaz oroitzen naizelaik.

8.13. Orai 5 edo sei etan, amalauetaraño eta nere denboran amabitarano baño nik eta nere denborakoek amarrak artio apez jauna arront eritu zelakoz anitz. Bazue auserki elizako lanak, eta bertze irakasle onik atze agertu. Eskolan ikesi gindue idazten, irakurtzen ongi, erdarazko ortografia eta gramatika deitzen dena, kontu gisa guzietakoak (reglas de tres y de interés) deitzen zirenak eta laister aski egiten ginduz denek. (Geografia mundial) berdin ikesi gindue Nafarroa nola España guzikoa nola Europa, Asia, Afrika, Amerika eta Ozeania eta zein gustuara ikesten ginduen denak... barkazioak izeten ginduz aste sanduten eta uden. Aurregi nitze oroitzeke zer egunetaik zein egunetara, baño uste dut gure erriko inguruko errietan bezala izein zirela.

8.14. Eskolako denboran neskakoak nola mutikoek gauze berak ikesten gindue, gero amabietan asten gine neskakoak eskulanak ikesten, eta mutikoak aitei laguntzen, baño aitek bearbazue alabatxo bat edo bide bereikin, uzten zire eskulanak eta laguntzen gindio aitari.

8.15. Apezain ondolik, euskeldun garbie asi zaiñetik eta buruko bilo punteraño, erri ontan izen zire iru irakasle, bat Malagakoa. Denbora guti egon ze. Juan Manuel Aparizio zue izena. Bertze bat Alba de Tormes ondokoa, Ure Rufino Hernández deitzen ze; eta bertze bat ez naiz oroitzen nogua baño uste dut andaluze zela, deitzen ze Dionisio Hernández; aitu izen dut Españako gerra denboran il zutela. Baño nik ez dakit egie den edo ez. Bertze batzuk ere izen dire baño denbora oietan ni enindego Mezkitzen.

8.16. Lenago euskeran orai aspaldian erdaraz; orrengatik zenbait etxetan solas egiten dioten, ezagutzen da; baño eskoletan ez da nio-rendako.

8.17. Ez deustako baño erri ontako umen ume aski badazi Iruñeko ikastoletara eta ikesten dute ederki. Aur eben aita eta amak bizi dire Iruñen eta gogotik iortzen dituzte beren aurtxoak Ikastoletara. Nere bortz billoba badazi San Fermingo Ikastolara eta xarmanki ikesten dute Jau-nari eskerrak. Lau mutiko eta nexka bat dire.

8.18. Jaungoikoaren legeko gauzak ez erakustekotan gure aurrak ez leizke beretan sartu. Arront maite ditugu Euskera bere lege zar guziekin baño guk oien gañetik dugu geuren etxetan Jaungoikoa bere lege sanduarekin, baño, oartu Jaungoikoarenaikin...

8.19. Ongi egiten dutelaik aupatuz eta gaizki egiten dutelaik erranez naigabe aundia dugula egin duen gaixtekerieikin eta erakutsiz negarrez gaudela nik ori egin dut nere eskutan izen diren aur guziekin. Uste dut obe dela onez on egin ezik yoz edo olakoak iduri (gauza ebek erranak dire altzinego).

8.20. Eliza nagusie edo parrokia eta Mikel deunaren ermita. Eliza nagusien egunero meza sainduz eta naiduten guzien jaun artzea; eta igandeko bi meza izeten dire. Bat laronbat artsean zortzietak amarretara ori lanek edo denborak erraten dute. Ermitan sanduain egunean meza nagusia geienean apez bat baño geiagokin erretore jaunarekin eta erri bereko seme zenbaitekin. Ez da sobera toki izeten. Egun ori dena besta da. Eta gibelera juan bear dut zerengatik ez dut igandeko bigarren mezaz deus ere erran. Egunain erdian

izeten da, erriko geienak juaten dire baño ala ere uste dut laronbat artsetan geiago izeten dela. Bietan itzaldiarekin. Maiatzean igande batean (orai) eta lenago maiatzeko bazkoko altzineko ortzile-rean juaten ze eta juaten dire Ama Birgiñari Orreagako elizara alduten guziek juan eta etorri biotzekoa egitera; ain Ama maiteari. ¡Zein guti iltzen diren Beraí deitu gabe erri aietan! Oraiko afera guti dakit, baño nere aur eta gazte denborako eliz bide edo prozosioak nolakoak ziren bai. Orduan gizon eta mutil anitz juaten zire zurezko gurutze aundi bat soñan artua eta oñak ortoxik; gurutzeai korda batekin ongi lotue bela edo kanela aundi bat Ama Birginaren altzinean erretzeko. Gero Mariaren alabak beren irudieko edo estandartearekin bi neskaxa xuriz besti edo aingeruz beztu eta gañerakoak Ama Birgiñaren domina edo medalla zerrenda edo zintan sartue, lepotik dilinden, eta gero andre ezkonduak eta gañerako guziak. Bidek ematen zute arrosario eta gañerakoek erantzun zute. Gizonen artean ematen zue erretore jaunak eta gañerakoek erantzun. Baño ez bazen aitzen denetara geiago manzale ateratzen zire eta denek izeten zute erantzun zaleak eta Mezkirizkoek bezala bertze gañerako amabi errietakoek berdin.

Artetan Ama Birgiñak abesten edo kantatzen zire abesti pollitak eta Mezkirizkoek geienean euskeraz «Izar eder», «Gure Ama txit laztana», «Agur nere biotzeko» eta bertze batzuk. Geienean Orreagan uzten dire meza sariak geuren ilendako eta bai ere Ama Birgiñari eskerrak emateko gure bizi guzian lagundu gaitulakoz anitz gauzetan; eta bai ere eskatuz geuren senide edo familiarengatik bear dituzten gauze guzietako. Andik ¿zer ekartzen degun? Fede edo sinismen aundiagokoa, itxaropen eta maitetasun fierragokoa geure inguruko guziari gañera alaitasun goxo bat gero eta urbilego ama Birgiña ikusiko dugun tenorea, Orreagatik ekarri izen dut, ura, eta anga Amaren irudia kolkoan eremateko edo bertze senidetan zenbaitendako. Aur geienak ameka km. arat bertze ainbertze onat oñez egiteko amar urteak baño len ez luke asi bear baño nere idurikoz lenago egin dugu geienek.

8.21. Gutiz gora bera sei urtetan.

8.22. Ikasbidea edo dotriña.

8.23. Dn. Manuel Lusarretaren denboran euskeraz denak, aitorzea eta itzaldiak ere geienak.

8.24. Nere idurikoz anitz eta ongi.

8.25. Nere ustez erri ontan pasatu diren guziak ongi eta xuxen erakutsi dituzte Eliza Ama

sanduaren erakutsi bearra gero zenbaitek bertze bide bat artu badute ere. Niri ez dire arritzen, sanyakorrak gara eta gañer adeneia nitz aldiz indarrak uzten gaitu.

8.26. Erri ontan ez da bertze religionez Kristio Katolikoa baizik, eta uste au damagule denek arront geure barnean sartua. Dena Jaunari eskerrak.

8.27. Igande eta besta guzietan meza entzun eta itzaldi onak entzuten duen kristauak uste dut sinesmena barrenean dutela. Uste dut irakurtzea maite dutela geienek eta an uste dut ez direla irakurgai txar aundik, erri ontan, pilota yokue maite dute, bai eta ere futbol deitzen dena, bide edo iru aldiz edo urtez nagusi atera da bertze inguruko errietaik Iruñarako artean; eta pilotan anitz aldiz. Ola inguroko erriekin biltzen dire eta eza gutzen dute elkar eta nere ustez denen onetan. Aspaldien ez da mutilik Amerikara juan. Orai duela urte bat eskas nexka bat juan ze bere anaia ikustera eta ez da oraiño itzuli dudarik gabe ongi dago, bere anaya ezkondu ze arreba juan gabe eta baditu bi aur eta uste dut aurrek maite dituela eta berekin ongi aurkitzen dela. Kanpotik ez da onara nior (etorri), ez bada Iruñeko zenbait, erriko ume zenbaiten aiskidea. Uden aurrez betetzen de erria, zerengatik bada erriko ume anitz ezkonduak eta bakazioak ongi eturtzen zaioite berei eta beren umei.

8.28. Emen denak Kristau onak dire, eta gu-raso onen umeak.

8.29. Erri tikia delakoz? ¿Ez dagolakoz karreteran? Nik ez dakit baña, emen oitura onekoak dire, euskera mintzetzen da, eta geiago gizon eta mutilen artean.

8.30. Nere ustez **a** eta **b** deus ere, **c** guti, **d** bakarbatzuk geago, **e** oraño geiago eta **f** geia-goena.

8.31. Ez dut uste pasatzen direla Eliza Amarek manatzen duenetik.

8.32. Nere ustez, egunoroko arrosario, Angelus Domini... eta yanarien bedeikazioa. Erauntsi iluna agertzen bada «Trisagioa».

8.33. Uste dut baietz, baño geagoena Orreagako Ama Birgiñari. Afrikara ez daitzen juan beren semeak, erixko paratzen bada norbait osasune eskatuz, azienda iltzeko beldurra delaik, senda daien makur guzietatik...

8.34. Ez dut egundaño ikusi bertzetan egiten ez dena.

8.35. Ez da, denak bide beretaik ibiltzen gara. Uretakoak Uretako bidetik; Biritxikerkoak biritxikerkoetik eta Txorrendokoak Txorrendokoetaik.

8.36. Lenago yar lekuak zirelaik bai, baño aiek ekendu eta alkiek paratu direlaik ez da, bakotxa paratzen da al duen tokien gende anitz delaik, eta guti delaik nai duenean.

8.37. Erran dut sinismen aundia dela eta itxaropena ere bai ¿maitetasuna? Erran dut erri ontan ez dela egundano ereman aur bat ere aur etxera eta adin aundikoik zarren etxetara. Orrek erraten du aski maitetasuna ere badela azkar.

8.38. Ez da, eta ezin izen Jaunari eskerrak. Nere ustez ez dire makurtu gazteri ona da, eta ona bezala bizi da. Eta denak nere ustez onak dire. Lenago ere nik onak ezagutu ditut. Barkatu baño nik etzakert bertzeik erran.

8.39. Erriko bestak Uztaillaren amarrean egin dire beti. «San Cristóbal» da erriko zaindaria, baño orai egun ortan besta egiten da. Beti bezain elizkizun ederrak. Erriko txistulariek elizen eta errian inguratzen dena, baño bestak (erriko bestak) dagonilain lemexiko igandean asten dire. Erriko gizon eta gazteriek antolatzen dituzte. Bersolarik ez baño pilotariak bai eta dantzak. Aurrek izeten dute beren egune eta ezkonduak ere bai. Sokatira, gizonen artean. Zaku korrikalariak aurretan. Eta bertze gauza aski erri txiki bat yostazteko.

8.40. Bai oroitzen naiz aur tiki tikie nitze-laik San Juan bezperan egiten ze su ederra etxe atari guzietan; urte bat lenago bedeikatu zen San Juan belarrak erretzen zire gau ortan, gero denak aundienetik asi eta aurreraño yauzie egiten zen suein ganetik, eta yauzie egiten zen demboran egiten ze eskia, Onak etxera, gaixtoak kanpora, ogi eta ardoa Española! Eta ebek idurikeko eskeak nekatu artio.

8.41. Nik ez dut ikusi alakoik, eta ez aitu ere. Suein iketzak uste dut etxe barneko suak erretzen zitue, nik ez dakit zetaz eta zerengatik egiten ziren gauza ebek.

8.42. Niorek ez dire erran zer erran nai zuen gauza ebek.

8.43. Ez sekula.

8.44. Ez dut ikusi alakorik; abestiak abesten dire baño geiegenak erriko nesketxei.

8.45. Arroitu aundiak izeten zire errege bezperan jualekin etxe bakotxan oiuz eta zalaparta

aundiekin batzurek goraka bertze batzurek bibak erranez ¡Gora gure aita errege! edo bida Jaungoiko errege etxe bakotxan atera zena. Etxe bakotxan egiten ze kartekin ia nor ateratzen zen errege urte artako eta biramon goizean, ateratzen zenak, baru austekoa eman bear ziote etxe-ko guziari. Giseontan egiten ze: adin geagoe-na zuenak artzen zitue yokuko kartak eta mai garbi baten gañan bi plater garbi paratzen zire gañan. Gero erran duden bezala etxean adinik geiagoe-na zuenak nasten zitue kartak eta gero gazten gaztenak austen (ez autsi, ekendu baizik) eta lan bera egiten ze iru aldiz eta orduan bi lemexikoak botatzen zire plateretara erranez: Jaungoikoa, Ama Birgine, eta gero beretago zarrena zelakoz, eta gero zarrenez zarren juaten ze aur tikieneraño eta gero berriz asiz, Jaungoikoa, Ama Birgine... atera artio errege ezpata, eta norei erortzen zitzaien, ure ze errege edo erregine. Orduen juale bana artu bakotxak eta soñatu al guzia erranez. Gora edo biba au, edo ure. Eta len etxe geienetaik entzuten ze tenoretsu berean. Au ze arroitu anitz egiten zen besta Mezkirizko errian.

8.46. Iñauteriec: biltzen dire mutilek eta etxez etxe ibiltzen dire artzen beren afarie egiteko; Iñauteriko igandean eta asteartean eta berdin biltzen dituzte arrotzeak, txixtorrak, nola sosa edo dirua. Geienean zenbaitek ez dire egun ebetan beren arropekin beztitzen. Oraikoz ez dakit baño len ikusi izen dut zenbait andrez beiti. Akordeona edo Inpernuko auskoa deitzen zena euskal errian, soñatzen zute berdin gitarra zar batekin batean. Abesten zute baño ez naiz oroitzen zer.

8.47. Ortaik deus ere, nere denboran.

8.48. Ez. Baño bizker besta zenbait egiten bada, Ligeztan egiten da eta berean bada iturri eta asko onak. Olakoetan uste dut geienetan kostilladak egiten dituzte.

8.49. Ez dut egundano alako gauzai entzun eta ikusi sekula.

8.50. Bai errana da martzoain ondar gabeen nola den aizea ala izein direla urbilen iru ilebe-teak. Iperra balinbeda otz aundi, eta egoa balinbada berotsuak. San Juan egunean aize egua balinbada ude berua eta iperra balinbada aize goxoa; baño aize iperra ude guzian, iper aizea nagusi.

8.60. Ez dut uste Sandu ebek baduten deus ere erri onen oiturekin. Atzendu zaide Iñauteko gauzetan egun oietan oitura zela txerri zango, esku eta belarriek egosi onduan irineztatu egoki-egokia ongi egin ondoan tomate xaltsan egos-

ten dire eta yanari ona izeten da. Kandelera eguneko mezan bedeikatzen dire kandela edo belak. Biramonean San Blas eguna bedeikatzen dire jenden yanariak. Bai eta ere zenbait azien-dena ere bai. Ilbeltzain amazpian San Anton egunean meza ondoan Eliza ondoko plazara erematen dire aziendak eta an bedeikatzen ditu Erretore jaunak. Ez dakit gauza geiago oitura ebetaik. Subilerekoak urte berri eta erregelakoak nik uste dut erranak direla «Neure oroimenetan» baño berriz errain ditut lenik Subilerkoak. Goiz goizetik paratzen zire suain bi aldetaik bi egur aundiak eta egun guzian etxe guzietan izeten ze su aundia, su aren eguna zelakoz. Geienetan afaltzean yaten ze besugoa saltsan gero gaztaña eta sagar erreak eta urte zenbaitez ez bazire ebek erretzen egiten ze arroza esnean egosia azukre eta kanelarekin ongi egosia gero atratzen zelaik ontzietara botatzen ze gañera galleta osoak eta uzten ze oztera eta au piku eta turrunakin ateratzen ze mai gañera. Gero Jesús Aurrari abesten gindeko denek abesti pollitenak. Arront umore onean bakotxak bere etxean gau erdiko mezatenoretaño orduan aur tikiak balin bazire amatxi gelditzen ze aurtikien zain eta ez baze juaten gine denak, baño sukalea gelditzen ze arront garbitua, eta itzultzean aurkitzen gine ogi pikoralde batekin supezterean. Amatzik negarrez biltzen zitue denak erran nai zuelako urte guzian izein ginduelakoz bear ginduen ogia. Eta otoitza egiten gindue eskerrak emanek denek eta juaten gine guatzera. Nik ez dakit nondik agertzen ziren ogi pikor aiek ni juaten nitze ondarrekin ikusteagatik nok paratzen zituen eta etxeko giltzeikin zenarekin itzul nitze baño ez tut artu nork botatzen zuen ogi pikorra. Urte berriko ilun nabarrean erriaren kontura ematen zute ogi eta ardo auserki gizon eta mutil guziari. Gaberdiko mezan eta meza nausian artzaiak ofrenda egiten zute bere artzain arropekin; gauza ebek denen oiturak zire.

8.61. Garizumeko oiturak zire atsalde geienetan egiten zuzte Gurutzetako estazioak. Arrosarioa artsoro elizan gero gazterie emezortzi urtetaraño seurik juaten gine eliz ikas bidea ongi ikastera. Gero ongi eldu zitsegote denei (niri lemexkoa) Bazkoz bete baño len, erretore jaunak galderak egiten zizkigu eta ongi bagindeude ematen zigu txartel bat erraten zuena ongi gindeudela ikas bide ortan, eta txartel au truketzen zute gure Jauna artzean Bazko egunean bertze baten gatik, erraten zuena Bazkoz egin ginduela. San Markos egunean amatxi aitzeneko urteo gauze bera: Xan Mark balinbauk Emak. Eta geienean ematen zue euralde aundi bat elurre etzelaik. Mayatzain le-

nean ez naiz oroitzen bertze gauzez baizik lau nexka sei urtetaik zortzietara loreak eskintzen zuztela Ama Birgiñari eta erraten ziotela arront gauza pollitak. Iruan Santa Kutz egunean banda eta baratzeraren erematen ginduela gurutze bat ur bedeikatuarekin alorre eta baratze bakotxetara. Egiten ze gurutzearekin bedeiketua alorra eta aite gure batzuk eskatuz gauzaik oberenak animen alde eta alorraindeko bedeika zezala Jaungoikoak bera. Salvatore eguna maitegarria da betitik baño ez dut auteman gauza berri bat egiten sekula, orrengatik ez dezaket deus erran. Badakit Iruritan mayatzean iruen asi eta agorran amalauera-no. Eguerdi guzietan soñatzen zute ezkilek besta egunetan bezala siestako denbora zelakoz.

8.62. Trintete egune bertze edozein igande bezala ze erri ontan. Nik ez dut ikusi bertzeik ez bada aurren lemexiko Jaun artze zenbait eta ori badakit baetz baño ori ere gutiz gora bera berdintsuek izeten dire. San Juan eguneko gauza anitzez oroitzen naiz; batez ere oroitzen naiz Besta zen denboretaz aspaldiko afera da ori. Meza nagusian bedeikatzen zire lisontsie bere lorearekin, lizerra, orreak eta ezel pixko bat ere loreak eta denak bedeikatuak goratzen zire urbilen San Juan bezperara eta orekin egiten ze sue eta auts ure botatzen ze baratzetara, uste dut urbil dituztenek alorrak beretara ere botatzen dituztela autsak San Juan besta ekendu zelaik; sue egitea utzi zute San Pedro bezperara eta aspaldik asi eta ala egiten dute Mezkirizko erriko mutilek orai artio. San Lorenzoko eguna bertze edozein bezalakoa da. Eta San Migel, bai besta aundie da. Denbora ona bada eliz bira aundia izeten da erriko elizetik baseliza edo ermitara juaten dire erriko geienak meza entzutera. Nik maite dut besta au anitz, ez nuke nai galdu daien. Urriko ilabetean elizera juaten da jende geiago eta uste dut etxe guzietan errezatzen dela arrosarioa.

Urriko ondarrean Illerria garbitzen da eta lore anitz paratzen dute bakotxak beren ilei. Sandu guzien egunean geienek aitortu eta Jauna artzen dute. Gogotzen dute zeruan direla beren ilak eta ayen laguntzarekin uste dutela erdietstea Jaunaren errukitasuna. Emen sinesten dena ori da Zeruan edo zeruko bidean daudela jua zaizkigunak eta geuren otoitzekin bear ditugula lagundu len baño len sardaitezen zeruan oraño daudenak an. Ori da animetan edo animetaz sinesten dena erri ontan. Ilen egunean meza ondoan denak juaten gara ilerrira eta an iltoki bakotxan egiten dire otoitzak (responso erdaraz). Bederatzi urrenean elize beteak izeten da, ez dute niorek ere meza

oiek utziko entzun gabe. Alakoa da erri euskaldun ontako jendea.

8.63. Izetekotan Sorogaingo marka egunean, uren ekartzea bedeikatu zelaik... eta gauza idurietan.

8.64. Bai, urtean bein egiz-egi ikusten dute dena Aurizberrikoa Aurizberrikoekin, Lusarretakoa, Lusarretakoekin, Esnoz Esnozkoekin, eta denak ala; eta erxteko lana arreatzen badute dena ongi ertxie gelditzen da. Au auzelana bezala da eta izeten alda alkate jauna daien baño ez naiz segur. Nere aurtzaroan bai, nere aite igureia zen bezala juaten ze baño lanera. Eta alkate jauna ere, baño lanera.

8.65. Ni oroitzen naiz neure etxean ikusik kuxeta eta lau ortzekoa arront finki egina arront meatue eta kiderrak makurtuak eta oxkatuak. Oroitzen naiz nere amak eta amain aitek egiten zutela, nik bortz urte ez nitue; lau eta bortz ilabete nituelaik il ze; ni oroitzen naiz lanean gisa ortakoak egiten ikusia.

8.66. Uzteiak ez dakit non egiten ziren. ¿Aezkoan? Ez naiz segur baño izen daike. Mezkitzen egiten zirela ez dakit ez naiz deustako oroitzen. Baña baston eta makil pollitek egiten zire, bertze gañerako gauzaik ez dut uste.

8.67. Gauza ebetaik ere ez dut ikusi eta ez aitu ere deus ere. Ez badute egiten, ez dute zetaz gogoan iduki deus ere.

8.68. Au ere berdin erraten dut.

8.69. Kaikuek eta makilak, sue eta nabala. Bai eta ere bertzone suen goritzeko. Ez, jotak bai, ortako eta erdarazkoak egiteko. Lenago abesten zire kantu euskaldunak eta egiten zire arront ongi «Markesaren alaba» «Arboletan den ederrena da Oian beltzian bagua» «Agur gizon gaztea konpañiarekin» «Nagusi Jauna, Auxen lana» eta bertze anitz neure aitari ikasiak nitue. Baño lemexiko bersolari euskalduna, nere senarra ezagutu nue eta ura jgizajoa! Iruritarra ze.

8.71. Ez dut uste sekula izen dala Mezkitzenko errian gauza ebetan sinetsi duenik.

8.72. Berdin erraten dut galdera ebetara. Aurrei ez da lotsazi bear, eta ez da egiten.

8.74. Ez da alako konturik, erri ontan. Emendik egun eta bortzeraño ez dakit itz bat ere.

8.105. Sorgin kontu zenbait aitu izen dut baño Mezkitzen pasatuak baño geiago Baztanen eta Frantzien. Frantzieko erri batean erraten zute etxe

batean azienda guzie arrama edo orro aundiekin yauzike (zebillela) aste artako gau guzietan eta, azkeneko, etxe artako nagusia aizkora aundi batekin jua zela azienda nasie zegoen tokira eta an bei baten gañan zegola katu bat eta orduen artu aizkola eta beso bat moztu ziola eta orduen erran zio andre mintzairaekin: «—Eman zadak bertze bat». Eta gizonak erran ziola: «—Baun aski orrekin». Eta biramonean erri artako Etxealde bateko etxeke andrea beso motzaikin agertu zela.

Gau aiek Mezkitzenko gizon batzuek etxe artan berean zeude eta aiei aitu niote nik eta orren-gatik dakit. Sorginkeriak erraten zute lenago gisa ontan artzen zirela. Sorgina iltzen ai zelaik inguruan direnei eskua eskatzen duela eta maten bazayo ematen duena gelditzen zela sorginkerie guziekin gelditzen zela. Nik ez dut erraten ori egie dela, baizik sinismendu ori zela lenago eta ez dakit nok ateraya den. Gañerako sorginkerie zenbait Baztanen entzunek, bat aunteikin eta bertzea txerrikumekin zezi. Bertze galdera oietara nik ez dakit deus ere.

8.106. Galdera ortara ere nik ez dakit deus ere.

8.107. Ez dut uste niorek ikusi duela batere eta nok erran dezake deus ere ez badu ta ez aitu eta ez ikusi deus ere? An bakarrik dakite lenagoko zenbait lekaide edo zenbait frailen itzaldietan entzunak iletaz eta infernuaz, garbitokiaz eta zeruaz. Gendeak sinismena daukate Jesukristoin Berri ona edo Ebangelioan.

8.108. Berriz gauza berak.

8.109. Nere idurikos Garbitokiko animak Zeruratzenko oberena: Meza sandua entzun eta eskeindu berengatik. Agertzen balire oberenak apezak.

8.110. Ez dut uste animei inport zaioten deus ere gauze oietan batek ere.

8.111. Ez dut egundeño deus aitu.

8.112. Ez dut egundeño bat ere ez ikusi eta ez aitu; zenbatak nai lukete baño. Ixilegi gelditzen dire agertzeko gure artean. Ez dut uste niorek egiten duela deus ere etxean animengatik. Artzean garbi uzten badire xokoak ez da animek garbi aurki dezaten baizik gabas aurkitzen bada zerbait naigabe zenbait, garbi garbi dauden bazterrak.

8.113. Ez da deus ere alakorik. Urte alde bat baditut baño ez dut deus ere gauza ebetaik ez entzun eta ez ikusi.

8.114. Batek ere.

8.115. Bearbada, usoak.

8.116. Txakurrek. Beren zaunka ilunekin.

8.117. Sugeak. Beren aguan.

8.118. Batere.

8.119. Baliosa balinbada nai eta ez min geiago uzten du. Bei esnedune balin bada kalte aundie artzen du nekazariak eta aratxe tikia balin badu geiago. Zeñek geiago balio duen kalte geiago yabea indeko. Bertze baliotasunak guti baliodu.

8.120. Erraten bazaio il dela norbait bere nagusiaren etxean argizeri geiago egiten duela, Elizan erretzeko.

8.121. Ez dut uste animale oiek erranai dutela deus ere Mezkirizko errian.

8.122. Tortoloak abeste dutelaik erranez: Tortolo Tortolo, euri anitz egiten duela.

8.123. Ez dut alako gauza baliosik ezagutu oraño.

8.124. Gurutze sanduak eta ur bedeikatuak. Erraten dute intzaurrek suerte gaixtua ematen dutela etxe ondoan.

8.125-126. Lisontsi lorea bedeiketue eta intzensue erretzen da endoia edo pala batean, eta ekea ematen da beor edo zaldiei eta sendatzen dire. Bertze gauzetako ez dakit itzik ere. Arri biribil batzuk arront pisuek eta marka batzurekin arront pisuak izeten dire, aire gaiztoa deitzen dire. Bertze arri batzuk badire iduri dute zapetak, zenbait arront aundiak nik doi-doia goratzen ditut lurretik, gisa berberekoak eta negurri tikienera-nokoa ere izeten (dire) mendien eta erriraño neure etxeain ondoan ere ikusi izen ditut, ez da arri pollite baño gisa berekoa izetean..., orrengatik bakarrik paratu dut.

8.127. Nik ez dut auteman sekula alako sinesmenik.

8.128. Nik dakidela deus ere. Deus beñere. Erri ontan, nik dakidela ez da nior ere alako gisako sinesmena duena.

8.129. Gauza bera erraten dut. Orai oroitu naiz reuma sendatzeko buztin lurra egosi eta albezain bero paratzen zutela zaku tiki batzurretan paratzen zutela oñazea zenain gañan eta sendatzen zirela.

8.130. Mezkitritzen ez naiz oroitzen; baño bai

Iruriten bendabala deitzen ziote eskaratzeko arri zabalak bustzean zirelaik.

8.131. Aurizberriko ezkilen soñua aitzen delaik; Mezkitritzen, denbora txarra.

8.132. Elurra edo izotza.

8.133. Nonbait gaizki, mintzo direla beraz.

8.134. Eztula gañan duela. Txopinek esea dela; arrausiek logale dela.

8.135. Ez dakit baduen deus ere.

8.136. Deusei ere. Afari arime egin.

8.137. Emen seurik ez.

8.138. Erri ontan ez seurik.

8.139. Berdin erraten dut: erri ontan ez.

8.140. Nik baño geiago daki galdera ebek egiten dituenak. Nik ez dakit izen daitekenik ere olakorik.

8.141. Au aitu izen dut: Begi txarra bota díó, baño ez dakit jendei ze edo aziendai zen, eta ez dakit norek eta nola ere ez. Ez eta ere senda daiken edo ez.

8.142. Ez dut uste eta izen badaike ez daukegu txarra nornaíen eskuetan egon bear badugu.

8.143. Nik ez dut egundeño alakorik aitu eta obeak dire ez aitzeko.

8.144. Ez dakit ortako balio duten exorzismos deitzen dire otoitzak.

8.145. Lenago errain zue nornaiek «abio-nean». Nik ez dakit bertze gisaik.

8.146. Ez da alako deus ere emen.

8.147. Ez olakoik ere.

8.148. Ez olakoik ere. Alkea ematen dire ez yakitea geago baño Mezkitrizko erriko galdera ebek ez dire. Niorek ez daki gauza ebetaik deus ere.

8.149. Ez Jauna.

8.150. Ez ta ere.

8.151. Ezta gogoan pasatu ere.

8.152. Ez da alakorik.

8.153. Eri denak sendatzeko ían bear badu il bearko da eriek yateko, bertzelaz bertzelaz ez da iltzen deus ere.

8.154. Gatza edo ure. Nere amak talo egiten

zuen aldi guzioro erraten zue etzela gauze obeik sue itzeltzeko talo erretzea baño.

8.155. Ez dut sekula entzun olakorik.

8.156. Nere ustez umore ona eta baretasun aundi bat.

8.157. Ama Birgiñaren iduria eta San Antona ere bai.

8.158. Otoiz batzuk San Cristobal, San Rafael eta Bideko Ama Zerukoari. Nik ez dut geagorik ikesi duden urte alde ontan.

8.159. Artzen ze ogi borobil aundi bat. Egiten zitzaio gurutze aundi bat eta ematen zitzaio musu edo apa bat gañan eta ebakitzen zire zerra bana mayan diren guziendako. Eta ganerako ogie eta nabala edo kanibeta uzten dire bere tokien. Gero lau ortzeko batekin eskintzen da denei bana.

8.160. Ebaki duenak bere kanibetaikin ebaki badu, kanibeta utzi bear du eskuñeko aldean. Eskerreko aldean sekula.

8.161. Lurreko erori diren yatekoak endai edo pala batera biltzen dire eta gero bertza batera botatzen dire.

8.162. Afari arin bat egin eta esku eta aurpegia garbitu, otoitzak egin guatzean sartu baño len eta gau onak eman etxean diren guziei.

8.163. Bilo moxtea egiten da sobera luzetue delaik. Ez dut uste badela ez astean eta ez ilebe-tean egun bat autatua biloa moxteko. Axaxkalendako badire erran batzuk: Bat axaxkalak ongi idukitzeko moztu bear direla laronbatean, iruzkire eta bakarrik dagolaik. Neure amai aitue da baño berak guri bere umei astelen goizean mozten zigu.

8.164. Sure bota erratian «tori zarra kartzu berrie» eta aite gure bat errezatuz.

8.165. Nere aurriderak balin bazire lemexiko aldie zutela jantzi berrie paratzen zutela egiten niote tximiko bat erranez «tximiko berri». Neuronek paratu banue al guzie egiten nue garbi idukitzeko al bezain ongi.

8.166. Gabasko eskulanak ongi ikustea gal-tzen du. Bertze gauzaik ez dakit.

8.167. Ogie erortzen delaik lurrera, artu eta gurutze sandue egiten da berarekin eta apa edo musu ematen zaio. Lixue egitean asteain ondarean erraten da «Mari urdin bentako... lixue lar-onbatetako...».

8.168. Astearteak txarrak direla ezkontzeko eta itxasoan sartzeko.

8.169. Plenilunio deitzen denean.

8.170. Zenbaitek urbildua dela ondar eguna. Mezkitzen bazire eta abesten zire abesti pollit batzuk; ala asten zire: *Abenduaren lendabixiko/Goizeko zazpitan zen/templo santuan egondua naiz/Sermon eder bat aditzen*. Bertze guziak atzenduak ditut baño ez dut atzendua beretan mintzo zirela Josafateko zelaiaz gizon guzien piz-tueraz batzuk infernura yausteko eta gañerakoak zerura igeteko. Egin zituenak bazekie dudarik gabe ongi San Juanen apokalipsis deitzen den liburua.

8.171. Nere altzinekoek etxekite dudarik gabe deus ere etxe eta erri galdu oietaz. Niri ez dire niok deus erran. Berdin erraten dut.

8.172.173. Galdera oietaz 174.

8.174. Nik bakarrik dakit nere bi aitetxien aite eta amak altxatuak iduki zuztela karlistek, seme batek igesi egin zuelakoz gerratik.

8.175. Mendi barneko kastillo batean egon zirela aitua dut. Dudarik gabe erri ontan etze alako tokik ez eta ere alako animeleik niok ez daki alako gauzaik.

8.176-177. Ez batetik eta ez bertzetik niok ez dakigu deus ere.

8.178. Uste dut erriko etxe, elize eta zubi egin zituztenetan badirela sandu bat baño geiago eta zerura jua diren guziak zeruan direla, eta an diren guziak zeruan direla, eta zeruan dena sandua dela. Au sinesten dut baño deabruak ez dute nere ustez gauza on aundik egin.

8.179. Ez dut uste izen dela sekula baña aitu izen dut toki zenbaitetan bazela, baño etorri zirela berain eske eta toki bat erakutsi ziotela, baña egin-alak egin eta etzutela nion biletu eta itzuli zirela deus gabe eta denborain buruan mi-retu zutela eta biletu zutela nai zutena, baña ez Mezkitzen eta ez Merkirizkoek. Baño ez urrun andik.

8.180. Niorek ez dakigu pasatu den emendik ez sanduik eta ez deabruik. Aziendak bai eta erri berekoak.

8.181. Erri ontan ez da eizterrie. Deitzen zaio Yudu errantia; edo Abelen anaia zen, baño bere iltzalea eta Kain zena. Bein Yretzaletan pasatu zela erran zigu nere aita eta arront zalui zeila eta ogi egin berrie ebaki eta aragi ona ogiaren ar-

tean sartuz eman zio nere aitek eta arront naigabetua itzuli ze etxera nere aite. Erraten zue artu ziola eman ziona eta batre gelditu gabe artu ziola. Bertze aldi batez Jenarok erran zue baño bearbada berrogeite geago urten buruan Juan Fermine-netik beiti yautsi zela Ureta aldera.

8.182. Mezkitzen ez da peña aundien kontuik. Baño Orbarako errian bai. Erraten zute Orbarako mendi gañik aundien bazegola arri aundi bat eta bildu zela Jende alde gaitza mugiezteagatik arri aundi ure zegon tokitik eta denak bulketzen asi zirela inder guziekin eta asi zelaik beiti denek erraten zutela Orbara, Orbara, Orbara eta azkenean gelditu zela ugalde bazterrean eta orrengatik erria deitzen dela Orbara. Eguia? Gezurra? Nik ez dakit, baño niri erran bezala erran dut.

8.183. Bada Lusarretako, Esnoz eta Mezkitzen egian arzulo aundi bat deitzen da Leze estali; argi on bat ereman eta ikusgarria da. Nik aitu izen dut an bizi izen zirela lamiak eta bein deitu zutela inguruko erri bateko emagine aurre izen bear zuelakoz aietatik batek. Emagintza ongi egin ondoan eskatu ziote ongi sendatu artio ama eta aurra egun oso zaiela eta arront ongitu zirelaik eman ziote bere saria eta bere etxera zeielatik bidean biletu zue orraxa urrezko bat eta emaginek artu omen zue urrun zegolako lamiak zeuden tokitik. Oyuz zalapartaka asi omen zire eskatzen urrezko orraxa, baño batere entzun gabe erraten zutena juan omen ze bere etxera. Baño oyu egiten omen ziote: «Itzulzan urrezko orraxa ori bertzenaz ez dun ire etxean eroa edo ergela faltako», eta nere denboran oraño etzela faltatu erraten zute. Ez dakit ez zer erri zen eta zein etxe.

8.184. Erri ontako lemexiko elize uste dut Landetako Ama Birgiñaren elize izein zela au Mezkitzen eta Uretako artean zegola. Berantego itzaldi batean erriko orduko erretore Jaunak erran zue Ama Birgiña (1) Orreagara ereman zutela beltzen beldurrez. Zerametela Ibañetako Frailletara, Beditino edo Zisterkoak zirela, eta gañan zirela eta beltzen beldurrez zillerrezko kutxa batean sartu eta lurpean sartu zutela. Geroagokoak dire bertze dakizkigunak. Mezkitzen eta Uretako artean deitzen zaio Elizexarko artea. Zenbat egun urtekoak juan ote dire ordutik onara. Eliza ure erori izein ze eta arri aiekin in izein ze elize. Eta erri berean ere (badire) arri eder anitz etxe ederrean.

8.185. Dakiden gauzaik aundienak erran ditut.

8.186. Ni kontu gutietatik oroitzen naiz. Amatik erraten zigu erbi batena. Asealde aundi bat egin omenzue eta iruzkien berotasuna artzen aizen demboran goiti-beitiko pasatzen sabelean, erran omen zue: «á zer sabela tiro baten artzeko». Eta tenore berean tiro bat gañera, eta erbiak laisterrai eman zio erranez: «Txanzen ere ez da ke deus erran» ta bere laisterrerian pasatu ze inelaki dantzan aiziren toki batetik, soñulari aundiek ziren tokitik, eta orduan erran omen zue biziki asarre: «Bai bestetako gaude». Eta altxatu omen ze eta oraño ez da agertu.

8.187. Ez da deus alakoik ageri inguru ontan eta ez da deus erraten.

8.188. Ez eta ere galdera ebendako ez dut zer erran.

8.189. Bada erri zenbait bazuena nere aurtzarroan alako fama, baño uste dut orai nornai bezain abilek dire. Obe da ixiltzea.

8.190. Nere idurikoz gure lenagoko kontuak oraikoak iduriak zire. Galdera eben gibeletik errain ditut pare bat bedere. Erdaraz «la zenizienta» deitzen dena euskeraz kontatzen zire nere amatxik eta mile zortziegun eta berrogeian sortua ze.

8.191. Zer izen duen Iruzkiak. Ilergiak, Izerrek. Bertzen izenak euskeraz ez dakit, eta eben kontuik ere ez.

8.192. Goiza, eguerdie, atsaldea, ilun nabarra, artsa. Asteko egunek ebek dire: astelena, asteartea, asteazkena, ortzegune, ortzileria, laronbata eta igandea. Urteko ilebeteak ebek dire: Ilbeltza, Otsalla, Epaila edo martxoa, Jorria, edo aprile, Orrailla edo mayatza, Garagarria, Uztaila, Dagonila edo abuztua, Agorilla edo Agorra, Urrie, Azaroa eta Abendue. Urteko demborak: Udaberria edo Primedera, Ude, Udeazkena, eta Negua. Elurra nolakoa den? Ilbeltzean burdine, Otsaillekua altxairue; Epaila edo martxokoa arrie, jorria edo Aprilekoa lurre, maiatzekoa gazure. Garizume goiz bada edo berant bada erdie negu. Patxaran urte elur urte. Biorrak erran zio beiri: Ama birjina martxoko, ni borturat ostiko. Eta beiri erantzun zio: Ni Erramuren beldur, egin dezan txitxor edo elur. Aprile biribile urden degien txerri ile, eta martxo, ez ariko eta ez artxo. Negu eta Udeberrik denbora txarra otza. Maiatza, urte guziein ardatza. Ortzileria, aste guzian kontrarioa. Bada esaera zar anitz baño uste dut aski direla.

(1) Orreagokoa, ain segur egon zela an eta guk bear glindukela imitatu geiagoena.